

3/1989 Foru Araua, martxoaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Apirilaren 11koa)

Bizkaiko Batzar Nagusiek, martxoaren 21eko Osoko Bilkuran, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 3/89 Foru Araua onetsi dute, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitara dadila agindu dut. Horren berri eman dut, hura aplikatu behar zaien herritar, norbanako eta agintariek bete eta betearazi dezaten.

Bilbon, 1989ko apirilaren 3an.

Diputatu Nagusia,

JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK

3/89 FORU ARAUA, ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA.

HITZAURREA

Apirilaren 16ko 6/1986 Foru Arauak partzialki aldatua izan zen Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Azaroaren 28ko 10/1985 Foru Arauak, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoarekin eginiko Kontzertu Ekonomikoan aitortutako Arauemate-ahalgo autonomoaren erabilera suposatu zuen.

Balio Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko apirilaren 16ko 8/1986 Foru Arauak barnesarturiko tributu aldarazpenek, finantza eta fisko alorreko presazko neurriei buruzko 9/1986 Foru Arauak, epai-tasen ezabatzeari buruzko abenduaren 24ko 25/1986 Legeak, Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeak eta, era berean, Aurrekontuei buruzko geroagoko Foru Arauek, horiek guztiak bat egingo dituen arauemate-testuaren idazkera berria eskatzen dute.

Aparteko aipamena merezi du, Tributuei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoari egokitzeko eta Zergaren kudeaketan sortutako zenbait arazo konpontzeko araupeketak berriaren premia duen Zergaren balio-egiaztapenak. Konkretuki, komenigarri da argi jartzea, ezberdinak direla administrazioak egiazaturiko balioaren aurkako galdapen bideak eta ebaluaketa-prozeduraren aurkakoak; kontradiziozko peritu-tasazioa ez dela administrazioaren zehurtzarako egintza; hirugarren perituak eginiko balorazioaren bidez amaituta geratzen direla bideak eta administrazioaren aurrean agiria aurkezten duenari, Zerga ordaintzera behartuaren mandatari izaera ematen zaiola.

ATARIKO TITULUA

**LEHEN KAPITULUA
JITEA ETA EDUKINA**

1. Artikulua.

1. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga zeharkako jitezko tributu bat da, hurrengo artikuluetan ezarritako terminoetan jarraikoak kargatuko dituelarik:

- 1.a. Kostubidezko ondare eskualdaketak.
 - 2.a. Sozietate-eragiketak.
 - 3.a. Egintza juridiko dokumentatuak.
2. Egintza berbera ezin izango da, ezein kasutan, kostubidezko ondare eskualdaketaren kontzeptuan eta sozietate eragiketarenean likidatu.

2. Artikulua.

1. Foru Arau honek erregulatzen duen Zerga, egintza edo kontratu likidagarriaren benetako jite juridikoaren arabera exijituko da, aldeek emandako izendura edozein izanik, haren balioagarritasuna eta eraginkortasuna uki ditzaketen erazko zein barne-barneko akatsak kontutan hartu gabe.
2. Edozein baldintza dagoen kontratu edo egintzetan, haren kalifikazioa Kode Zibilean eta edukinezko arau zibilean edukitako preskripzioen arabera egingo da. Eten egitekoa balitz, Zerga ez da hori bete dadin arte likidatuko, likidazioaren gerorapena dagokion Erregistro Publikoan ondasunak lerrotatzean agertaraziko delarik. Baldintza deuseztatzea izango balitz, zer esanik ez, beti exijituko da zerga, baldintza bete dadinean 58. artikuluko arauen arabera itzulketa egokia egiteko erreserban.

Interesatuek horrela agertzen baldin badute ere egintza edo kontratuaren eraginkortasuna administrazio baimen edo onespen baten pean egotea, nahiz eta hauek manuzkoak izan, ez da eten baldintzatzat joko, kasua balitz, itzulketarako eskubidearen kalterik gabe.

3. Artikulua.

Negozio Juridiko bakar bati eskubide baten ordainketa baino ezin dakioke exiji, baina agiri edo kontratu berak banan-banan Zergari loturiko haietariko batzuk eskuhar ditzanean, haietariko bakoitzari adierazitako eskubidea exijituko da, beste zerbait adieraz dadin kasuetan salbu.

4. Artikulua.

1. Eskualdatutako ondasuna eta eskubideak, haien edukitzailea edozein izanik, eskualdaketak horiek kargatzen dituzten Zergen ordainketaren erantzukizunari ukituta geratzen dira, hura erregistroko fede publikoak babesturiko gainontzeko bat denean edo, ondasun higigarri lerrokaezinen kasuan, merkatal edo industri establezimenduan eskuraketa fede onez eta bidezko tituluz ziurpe dadinean salbu. Ukipena Notarioek baimen ditzaten agirietan ohararazpen egokiaren bidez agertarazi beharko dute. Erregistroak espreski ukipena ager dezanean gainontzekoa ez da erregistroko fede publikoak babestutzat joko.
2. Salbuespen edo murriztapen bat emakida dadinean, haien behin betiko eraginkortasuna zergadunak geroago beharkizunen bat betetzearen pean dagoelarik, Bulego Likidatzaileak onura fiskala agertaraz dadin oharrean emakidaturiko salbuespena edo murriztapena egon ez balitz igorpendu beharko zatekeen likidazioaren guztizko zenbatekoa agertu beharko du.

Jabetza edo Merkatal Erregistratzaileek, bazterreko ohar baten bidez, eskualdatutako ondasunak, haien titularra edozein izanik, adierazitako zenbatekoa ordaintzeari ukituta daudela agertaraziko dute, onurak emakidatu zituen arauak adierazitako epeetan, haien behin betiko eraginkortasunerako bertan exijituriko 5/36 beharkizunak bete ez daitezen kasurako.

3. Era berean, bazterreko ohar baten bidez, jabari zatibanaketaren kasuetan, gozamenaren azkenketagatik bidezko dadin likidazioa ordaintzeko ondasunen ukipena agertaraziko dute, horretarako Bulego Likidatzaileek behin behineko, eta zuzenketaren kalterik gabe, gozamenaren eraketaren unean zeuden oinarri eta mota aplikagarrien arabera bidezko litekeena zainpetuko dute.

5. Artikulua.

Foru Arau honetan espreski kargatu gabeko eta legezko manu baten bidez beraiei parekatuak izan ez diren egintzak eta kontratuak ez dira Zergapekotzat joko, Bulego Likidatzaileak lege-mauiagatiko espediente egokia egin dezanaren kalterik gabe, haren kalifikazioaren peko egintza edo kontratua Zergari itzuri egiteko nahiaz egiztatu denean, kargaren peko beste egitate juridiko batek sortutako emaitza baliokidea sortzeko gai baldin bada.

II. KAPITULUA ZERGAREN APLIKAZIO-EREMUA

6. Artikulua.

Bat. Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio ondoko kasu hauetan:

A) Ondare eskualdaketak:

- 1.a. Horien gainean erortzen diren ondasun higiezinaren kostubidezko eskualdaketetan eta errentamenduetan eta gauza eskubideen kostubidezko lagapenetan, berme moduan egiten direnak barne, baldin eta Bizkaiko lurraldean finkatuta badaude.

Eskualdatzen diren baloreen erakundearen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak Bizkaian baldin badaude, uztailearen 28ko Baloreen Merkatuari buruzko 24/1988 legearen 108. artikuluan ezartzen diren kasuetan.

- 2.a. Ondasun higikorren, abereen eta kredituen kostubidezko eskualdaketetan, eta haien gaineko eskubideen kostubidezko eraketa eta lagapenetan, baldin eta eskuratzailaren ohiko egoitza, pertsona fisikoa izanik, Bizkaian badago eta, pertsona juridikoa baldin bada, zerga-egoitza lurralde horretan badu.

Aurrekoa gora-behera, ondoko bi salbuespen hauek ezarri dira:

- a) Akzio, harpidetza-eskubide, betebeharrak eta antzeko titulu, gainerako balore eta gizarte-partaidetzen eskualdaketetan, eragiketak Bizkaian izapidetzen baldin badira.
- b) Ondasun higikorren gaineko hipotekaren eraketetan edo lekualdaketarik gabeko bahituretan, edota itsasuntziak edo aireuntziak badira, aipatu diren ekintza horiek Bizkaian inskribatuta egon behar direnean.
- 3.a. Mailegu xehe, fidantza, higiezinak ez diren gaien eta pentsioen errentamenduak eratzen direnean, baldin eta mailegariak, errentariak, fidantza-hartzaileak edo pentsiodunak, pertsona fisikoa izanik, Bizkaian badu ohiko egoitza eta, pertsona juridikoa izanik, zerga-egoitza lurralde horretan badu.

Hala eta guztiz ere, ondasun-bermea duten maileguak direnean, hipotekatutako ondasun higiezinak Bizkaian kokatuta badaude edo lekualdaketarik gabeko bahiturak lurralde horretan inskribatu ahal badira.

Bizkaian eta beste lurralde batean, erkidean edo foru lurraldean, kokatutako ondasun higiezinaren gaineko hipotekaren bermea badu maileguak, edo Bizkaian edo beste lurralderen batean inskribatu ahal den ondasun higigarrien gaineko hipotekak edo lekualdaketarik gabeko bahiturak bermatzen baldin badu mailegua, zerga ordainduko dio administrazio bakoitzari ezartzen zaien erantzukizunaren arabera. Eskrituran ez bada horri buruz ezer zehazten, egiaztatutako ondasunen baloreen arabera ordainduko du.

- 4.a. Ondasunen administrazio-emakidetan, baldin eta haiek Bizkaiko lurraldean finkatuta badaude; halaber, obra burutzapen eta zerbitzuen ustiapenetan, baldin

eta Bizkaian burutzen edo ematen badira. Administrazio-emakidekin parekatuz zerga ordaintzen dute administrazio egintza eta negozioak direnean aplikatuko dira erregela horiek.

Ondasun-ustiapenen emakidak Bizkaiko lurralde-eremua gainditzen duenean, Bizkaian duen azaleraren proportzioan eskatuko da zerga.

Obra-burutzapenaren emakidak Bizkaiko lurralde-eremua gainditzen duenean, Bizkaian egingo diren obren zenbatekoaren proportzioan eskatuko da zerga.

Zerbitzu-ustiapenen emakidak Bizkaiko lurralde-eremua gainditzen duenean, tartean nahastuta dauden lurralde guztien aldean bere biztanleria eta azaleraren portzentajeen batez besteko aritmetikoaren arabera eskatuko da zerga.

Emakida mistoek Bizkaiko lurralde-eremua gainditzen duenean, eskatuko da zerga aurreko hiru lerroketan adierazitako irizpideak emakidari dagokion parteari aplikatuz.

Administrazio-emakidek Bizkaiko lurraldea gainditzen dutenean zergaren ikuskaritza Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio, emakidadun erakundearen zerga-egoitza lurralde horretan baldin badago.

B) Sozietate-eragiketak:

Ondoko inguruabarretariko bat gertatzen denean:

- 1.a. Erakundearen zerga-egoitza Bizkaian egotea.
- 2.a. Erakundearen sozietate-egoitza Bizkaian egotea, baldin eta benetako zuzendaritza Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko zerga-administrazioaren lurralde-eremuan ez badago edota, horrelako batean egonik ere, estatu horrek sozietatearen eragiketa antzeko zerga batekin kargatzen ez badu.
- 3.a. Erakundeak Bizkaian egitea bere trafiko-eragiketak, baldin eta benetako zuzendaritza eta sozietate-egoitza Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko zerga-administrazioaren lurralde-eremuan ez badaude edota, horrelako batean egonik ere, estatu horrek ez badu kargatzen sozietatearen eragiketa antzeko zerga batekin.

C) Egintza juridiko dokumentatuak:

- 1.a. Eskritura, akta edo notario lekukotzetan, baldin eta Bizkaiko lurraldean baimentzen edo egilesten badira.

Aurreko lerroaldean adierazi dena gora-behera, egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargaren kuota gradualari lotuta dagoen balizkoetan, baldin eta ondasun edo ekintzak inskribatu edo idaztoharra egin behar den erregistroa Bizkaian badago.

- 2.a. Kanbio-letretan edo haien ordezkioetan edo igorpen-funtzioak egiten dituzten agirietan, eta ordaintzekoetan, bonoetan, obligazioetan eta titulu baliokideetan ere, baldin eta igorpena Bizkaiko lurraldean egiten bada eta, atzerrian eginik, lehenbiziko edukizaillearen ohiko egoitza edo zerga-egoitza lurralde horretan badago.
- 3.a. Aurrearretazko idaztoharretan, baldin eta Bizkaian kokatuta dauden erregistro publikoetan egiten badira.

Bi. Honako artikulua honetan ezarri denaren ondoretarako:

A) Pertsona fisikoek ohiko egoitza Bizkaian dutela ulertzeko, hurrenez hurren ondoko arau hauek aplikatuko dira:

1.a. Euskal Herrian aurreko urtean baino egun gehiagotan egonik, datatik dataren zenbatuta eta zergaren sortzapenaren aurreko egunean amaitzen den urtean, epealdi horretako egun gehiago eman behar dute Bizkaiko Lurralde Historikoan beste Lurralde Historikoetan baino.

Egonaldia zenbatekoa den konputatzeko, aldi baterako ausentziak konputatuko dira.

Besterik frogatu ezean, pertsona fisiko bat Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela pentsatuko da ohiko bizitza bertan daukan artean.

2.a. Interesik gehienak Bizkaiko Lurralde Historikoan baditu. Hala gertatzen dela ulertuko da baldin eta pertsona fisiko batek, Pertsona Fisikoen gaineko Zerga honen zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian eskuraturik, Bizkaian lortzen badu beste bi lurralde historikoetan lortutako zerga-oinarriaren zatirik handiena. Bi ondorio horietarako, higikorren kapitaletik eratorritako ondare errentak eta irabaziak ez dira aintzat hartzen, ezta zerga gardentasuneko araubidean egotzitako oinarriak ere, profesionala izan ezik.

3.a. Pertsona fisikoek Bizkaia izan behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako aitortutako beren azken egoitzaren lurraldea.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta, lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan –komun edo foralean– zehaztea. Hirugarren araua inguruabar bera gertatzen denean aplikatuko da, lehenengo eta bigarren arauetan ezarri dena aplikatu ondoren.

B) Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egun baino gehiago ematen ez dituztenak, Euskal Herriko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

Aurreko lerroaldean ezarritakoarekin bat etorriz pertsona fisikoek egoitza Euskal Herrian dutenean, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

C) Pertsona fisiko bat Espainiako lurralde egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez bereizita ez badago, eta beraren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izateagatik, beraren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Uste horren aurkako frogak aurkez daitezke.

D) Egoitza-aldeketek ez dute ondorerik izango helburua zergengatik gutxiago ordaintzea denean.

E) Pertsona juridikoen zerga-egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da, baldin eta sozietate-egoitza lurralde horretan badago eta administrazio-kudeaketa osoa eta negozioen zuzendaritza lurralde horretan zentralizaturik badaude. Bestelakoetan, kudeaketa edo zuzendaritza hori burutzen den tokia hartuko da aintzat.

Aurreko irizpideen arabera zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, pertsona juridikoek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta ibilgetuaren baliorik handiagoa Bizkaian badu, beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino.

F) Establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da administrazio-kudeaketa edo negozioen zuzendaritza lurralde horretan burutzen dutenean. Irizpide

horren arabera egoitza inon ezartzerik ez dagoenean, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua hartuko da halakotzat, aurreko E letraren azken lerroaldearen irizpidea aplikatuz.

- G) Elkarre zibil eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan egiten bada. Lehen aipatutako irizpidea (zuzendaritza eta kudeaketa) aplikatuz elkarre zibilen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu.

Hiru. Artikulu honetan ezarri dena Espainiar estatuak sinatu eta berretsi edota atxekitzen zaien nazioarteko itunben eta hitzarmenetan xedatutakoaren kalterik gabe dela ulertuko da.

LEHEN TITULUA ONDARE ESKUALDAKETAK

LEHEN KAPITULUA EGITATE ZERGAGARRIA

7. Artikulua.

1. Zergapean dauden ondare eskualdaketak hurrengoak dira:
 - a) Pertsona fisiko edo juridikoen ondarea integratzen duten ondasun eta eskubide mota orotako "inter vivos" egintzen bidezko kostubidezko eskualdaketak.
 - b) Eskubide errealak, maileguak, fidantzak, errentamenduak, pentsioak, eta administrazio-emakidak eratzea, azken horien helburua tren-azpiegiturak, higiezinak, edo portuetako eta aireportuetako instalazioak erabiltzeko eskubidea lagatzea denean izan ezik.

Horien edukiera zabaltzea eskubideen eraketa gisa kitatuko da, baldin eta titularrari ondare-gehikuntza eragiten badio, eta gehikuntza hori zerga egoteko oinarri modura erabiltzen bada.
2. Zergaren likidazio eta ordainketaren ondorioetarako ondare eskualdaketatzat hauek joko dira:
 - a) Zorren ordainketan emandako edo zorrak ordaintzeko adjudikazioak, eta bai zorren bereganaketa ordaintzeko berariazko adjudikazioak. Bi urteko epearen barruan hartzekodunari haren kredituaren kaudimenean adjudikatu zitzaizkien ondasun eta eskubide berberak eskualdatu zizkietela frogatzen duten edota epe berberaren barruan xede honetarako gainontzeko bati eskualdatu zizkietela benetakotzen duten zorrak ordaintzeko adjudikatariek, epe berean, adjudikazio horiengatik ordaindutako Zergaren itzulketa eskatu ahal izango dute.
 - b) Aitortutako adjudikazio-soberakinak, salbu Kode Zibilaren 821., 829., 1.056. (bigarren) eta 1.062. (lehenengo) artikuluetan edo oinarri berekoak diren Foru Zuzenbideko xedapenetan ezarritakoa betetzearen ondoriozkoak, eta bereziki baserria eta bere jabegoa dohainik eskualdatzearen ondoriozkoak, eskualdaketa hori Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araupetuta dagoela.
 - c) Jabari-espedienteak, nabaritasun-aktak, Hipoteka-Legearen VI. tituluak aipatzen dituen agiri publikoenakta osagarriak eta Lege berberaren 206. artikuluen ondorioetarako emandako ziurtagiriak, Zerga ordaindu dela edo eskualdaketa ziozko salbuespena edo haren pean ez egotea benetakotua izan dadinean izan ezik, haien titulua beraieztatu eta batzuen eta besteen gai izan daitezen ondasunez ordezkaria dadinean, salbu espediente, akta edo ziurtagiriaren datatik konputatuko den epedun preskripzioa.

- d) Pertsona zehatz baten aldeko jabari-aintzatespenak, aurreko paragrafoan aipatutako salbutasun berberarekin, baita Hipoteka Legearen 200. artikuluan eta haren Araudiaren 298. artikuluan araupetutako edukiera-gaindikinak ere.

Aurreko ahapaldian xedatutakoa gorabehera, ez dira kargapetuko kasu bakoitzean den elementuaren azalera artezte hutsarekin bat datozen edukiera-gaindikinak, Hipoteka Legea betearazteko Araudiaren 298. artikulua 3. paragrafoan aipatuta badaude.

Ez dira kargapetuko ondasun higiezinetan agerian jartzen diren edukiera-gaindikinak ere, haiei Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak katastroan zenbaki finkorik esleitu badie.

- e) Ondasun higiezinaren adjudikazioak, baldin eta, sozietatea desegitean edo beronen kapitala urritzean, haiek ekarri zituena ez den bazkide bati egiten bazaizkio eta higiezina ekarri denetik sozietatea desegin edo beronen kapitala urritu arte hiru urte baino gutxiago pasatu bada.
3. Salerosketen ageriko deuseztatze-baldintzak, geroraturiko prezioaren ordainketa saldutako soroaz berma dezaten hipotetekin parekatuko dira. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuetsiak ez direlarik, zergapeko diren ondasun higiezinaren eskualdaketetan geroraturiko prezioaren ordainketa berma dezaten ageriko deuseztatze-baldintzek ez dute ez Zerga honetan ez eta Kostubidezko Ondare Eskualdaketetan, ondare-eskualdaketetan kontzeptuan, tributurik ordainduko. Eskualdatutako ondasun berberen gainean eraturako gorago aipatutako ondasun higiezinaren eskualdaketetan geroraturiko prezioa berma dezaten hipotekei erregimen berbera aplikatuko zaie .
4. Zerga honen ondorioetarako, erdirako eta azpierrementanduen kontratuak errentamentanduenekin parekatuko dira.
5. Aurrean aipatutako eragiketarako enpresariak edo profesionalek egiten badituzte euren enpresa edo lanbide jardueran, ez dira sartuko titulu honetan araupetutako «kostubidezko ondare eskualdaketak» kontzeptuaren barruan, ez eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko ondasun-emateak edo zerbitzugintzak ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zerga kontzeptu horren barruan daude:

- a) Ondasun higiezinaren emateak eta errentamentanduak, baita ondasunon gaineko erabilera edo gozamen eskubide errealak eratu eta eskualdatzea, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita badaude.
- b) Subjektu pasibo baten enpresa edo lanbide ondareko elementu gorpuzkorrak eta, hala denean, gorpuzgabeak, hain zuzen ere enpresa edo lanbide jardueran batean modu autonomoan aritzeko aukera ematen duen unitate ekonomiko autonomoa osatzen dutenak, eskualdatuz gero, eskualdatutako higiezinaren emateak, baldin eta ondarearen eskualdaketa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean ez bada.

Letra honetan ezarritako kasuetan eskualdatzen diren ondasun higiezinak ez beste ondasunen eta eskubideen emateak ez dira kargapean egongo titulu honetan araupetutako «kostubidezko ondare eskualdaketak» kontzeptuagatik.

II. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOA

8. Artikulua.

Zergadun gisa, eta aldeek aurka ezarritako hizpaketak edozeintzuk direla, Zerga ordaintzera beharturik daude:

- a) Mota orotako ondasun eta eskubideen eskualdaketetan, eskuratzen dituenak.

- b) Jabari-espedienteetan, nabaritasun-aktetan, agiri publikoen akta osagarrietan eta Hipoteka-Legearen 206. artikulua aipatzen dituen ziurtagirietan, eragin ditzan pertsona eta pertsona jakin baten alde egindako jabariaren aitortuetan edo edukin-gaundikinaren adierazpenean bere alde aitortua edo adierazia duen pertsona..
- c) Ondasun-eskubideen eraketan, egintza hau beraren alde egina izan dakion pertsona.
- d) Edozein jitezko maileguen eraketan, mailegaria.
- e) Fidantzen eraketan, fidantzaturiko hartzekoduna.
- f) Errentamenduen eraketan, errentaria.
- g) Pentsioen eraketan, pentsioduna.
- h) Administrazio emakidan, emakidaduna.

9. Artikulua.

1. Sorospidez, Zergaren ordainketaren erantzule izango dira hurrengoak:
 - a) Maileguen eraketan, mailegu-emailea, mailegariari Zerga hau ordaindu duenaren ziurpeagiria exijitu gabe, guztiz edo partzialki interesak edo kapitala edo maileguan emandako gauza hartu izan balu.
 - b) Errentamenduen eraketan, errentatzailea, errentariari ziurpeagiri bera exijitu gabe, errentaren lehen epea hartu izan balu.
2. Era berean, sorospidez edozein, estatu, foru edo toki tributu edo ordainarazpen motaren subjektu pasiboaren aldaketa baimen lezakeen funtzionarioak Zergaren ordainketaz erantzungo du, aldaketa horrek zuzenean edo zeharka Zerga honek kargatutako eskualdaketa bat dakarrenean eta aurretiaz beraren ordainketaren bidezko eskatu izan ez balu.

III. KAPITULUA OINARRI ZERGAGARRIA

10. Artikulua.

1. Oinarri zergagarria eskualdaturiko ondasunen edo eratu edo laga dadin eskubidearen benetako balioak mugarrিতua etorriko da. Bakarrik ondasunen benetako balioa urri dezaten kargak izango dira kengarri, ez, ordea, zorrak, bahiaz edo hipotekaz bermatuta egon arren.
2. Partikularki, hurrengo ataletan edukitako arauak aplikagarri izango dira:
 - a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen guztizko balioaren heinean hartuko da, urtebeteko aldi bakoitzeko %2aren arbera, %70a gainditu gabe.

Biziarreko gozamenetan balioa ondasunen guztizko balioaren %70az berdina dela zenbatetsiko da, gozatzailleak hogeitun urte baino gutxiago duenean, adina igo dadin neurrian gutxituz, gehiagoko urte bakoitzeko %1 gutxiagoko neurrian, guztizko balioaren %10aren gutxienezko mugaz.

Pertsona juridikoaren alde eraturako gozamena, denbora zehaztugaberako ezarritako gero, zergari begira, baldintza suntsiarazlearen menpeko jabetza osoko eskualdaketat hartuko da.

Jabetza soileko eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen guztizko balioaren arteko diferentziaz konputatuko da. Aldi berean, aldi baterakoak izan daitezten

biziarteko gozamenetan jabetza soila aurreko eduetatik balio gutxiago iratxiki diezaiona aplikatuz balioztatuko da.

- b) Erabilera eta biztantzarako ondasun-eskubideen balioa, horiek ezarriak izan zitzaizkien ondasunen balioaren %75ari, aldi baterako edo bitarteko, kasuen arabera, gozamenen balioztaketari dagozkion arauak aplikatuz atera dadina izango da.
- c) Hipotekak, bahiak eta antikresiak, bermaturiko erantzunbehar edo kapitalaren zenbatekoan balioztatuko dira, interes, kalte-ordain, eta ez betetzeagatiko zigorrak edo eta antzeko kontzeptuak segurta ditzaten kopuruak esku harturik. Bermaturiko kopuruaren zenbatekoa espreski agertuko ez balitz, oinarritzat kapitala eta hiru urtetako interesak hartuko dira.

Mailegu baten bermepean eratutako hipotekarik kitatuz gero, bermatutako maileguaren zenbateko izendatuarekin bat etorri arte txikituko da foru arau honen 29. artikulua 2. paragrafoan aipatutako egintza juridiko dokumentatuen mailakako kargaren ondoretarako kontutan hartu beharreko zerga-oinarria.

- d) Aurreko ataletan barne sartu ez diren ondasun eskubideak, eratzean aldeek itundu zuten kapital, prezio edo balioan egotziko dira urteko errenta edo pentsioa Espainiako Bankuaren oinarritzko interesean kapitalizatuz atera dadina adinekoa edo handiagoa izango balitz, zein honetan, hura txikiagoa izango balitz. Eta guzti hori 44. artikulua eta jarraikoen arabera eginiko Administrazio-egiaztapenak balio handiagoa ematearen kaltetan izan gabe.
- e) Errentamenduetan, oinarri gisa erabiliko da kontratuaren iraunaldian ordaindu beharreko hileko batez besteko errentarekin bat datorren kopurua.

Letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako, hileko batez besteko errenta hauxe izango da: errentariak errentatzaileari –ordainketaren kontzeptua edozein izanda ere, itundu den edo legezkoa den kontratu-denboraldi osoan– errentamendu-kontratu horrengatik ordaindu beharreko kopuru guztia, diruzkoa zein gauzazkoa, batu ostean, eta errentamenduak iraun dituen hilabetetan zatitu ondoren lortu den kopurua. Ondorio horretarako, ez dira aintzat hartuko hilabetea baino txikiagoak diren denbora-zatiak.

Errentamendu-kontratu itundu bada hilabetea baino txikiagoa den denboraldi baterako, kopurua proportzioan igo beharko da, kontratu horri dagokion hileko batez besteko errenta finkatzeko.

Letra honetan xedatutako ondorioetarako, aintzat hartu beharko dira errentan egin litezkeen aldarazpenak, legez edo kontratu bidez, kontratuari ezarri ahal zaizkion luzapenen ondorioz sor litezkeenak.

Legez, etxebizitza-errentamenduetan hartuta dauden hiri-finken errentamendu-kontratuetan, hileko batez besteko errenta ezarri beharko da bost urteko epean ordaindu ahal diren kopuru-multzoetik; eta letra honek bigarren idatz-zatian finkatutako araua ezarri.

- f) Pentsioen zerga oinarria Espainiako Bankuaren oinarritzko interesera kapitalizatuz lortuko da eta atera dadin kapitaletik, gozamenak balioztatuz ezarritako eduen erabera, pentsiodunaren adinari dagokion zatia, pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokion zatia, aldi baterakoa bada, hartuz. Pentsioaren zenbatekoa monetazko unitatetan hainbatzen ez bada, zerga oinarria lanbide arteko gutxienezko urteko soldataren zenbatekoa kapitalizatuz aterako da.
- g) Burtsan kotizaturiko balore negoziagarrien eskualdaketetan, oinarri zergagarria eskuraketa gertatu zen egunean Burtsan zuen kotizaziotik atera dadin berberen benetako balioa edo, haren ezean, aurreko lehen hiruhilabetekoaren barruan kotizatu ziren aurre-aurreko eguneko izango da.

Tituluak Burtsan kotizatuak ez dituzten entitateen sozietate kapitalaren partaidetzen eskualdaketetan, oinarri zergagarria onetsitako azken balantzetik ateratako berberen balio teorikotik erator dadina izango da, geroagoko administrazio-egiaztapenen kaltetan izan gabe.

Beste edozein balore negoziagarriren eskualdaketetan, oinarria, duen izendun balioak osatua izango da.

- h) Obra, zerbitzu edo hornidura kontratu baten adjudikatariaren alde beraietatik erator daitezkeen eskubideen kostubidezko eskualdaketetan, oinarritzat hitzartutako prezioa hartuko da eta hau mugarrituta agertuko ez balitz edo txikiagoa izango balitz, egiztatzeko gera dadin kontratugaia den prestazioari finkatutakoaren %6a.
- i) Jabetzaren Erregistroan zein administratiboetan ere ur publikoen aprobetxamenduen izenmaterako baimen daitezkeen nabaritasun-aktetan, oinarritzat ur horiekin onura daitezkeen lurrei esleitutako aberastasun ezargariaren %16aren kapitalizazio hartuko da.
- j) Landa finketako partzuergo kontratuetan, kontratuaren xede den finkari Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan esleitutako katastro balioaren 100eko 3a kontratuaren iraupenaren urte kopuruarengatik biderkatzearen emaitza izango da oinarria.
- k) Mailegariaren berme pertsonala baino ez duten maileguetan, fidantzez segurtatuta daudenetan eta zor-aitorpen eta ordaindutako gordailu-kontratuetan, oinarria erantzunbeharraren kapitala edo gordailututako gauzaren balioa izango da; kreditu-kontratuetan, mailegariak benetan erabili izan duena.

Bahiaz, hipotekaz eta antikresiaz bermatutako maileguetan artikuluko honen c) hizkian xedatutakoari begiratuko zaio.

IV. KAPITULUA TRIBUTU-KUOTA

11. artikulua. Karga-tasa.

1. Zerga-kuota likidazio-oinarriaren gainean hurrengo tasak aplikatuz lortuko da, hurrengo artikuluan ezarritakoaren gorabehera:

- a) %6 ondasun higiezinaren eskualdaketetan eta haien gaineko eskubide errealeen eraketan eta lagapenean (salbuespena: bermeeskubide errealeen eraketa eta lagapena).
- b) Aurreko idatz-zatian xedatuta dagoena gorabehera, etxebizitzaren eskualdaketek, orokorrean, garaje plazen eskualdaketak barne direla (gehienez bi eta beraien eranskinak, eraikin berekoak eta denak batera eskualdatzen direnean), %4ko karga-tasa jasango dute. Honen ondorioetarako, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Halaber, eskubide errealeen eraketa eta lagapenak, bermeko eskubide errealeen eraketa eta lagapena salbu, orokorrean etxebizitzaren gainekoak, garaje plazen eskualdaketak barne direla (gehienez bi eta beraien eranskinak, eraikin berekoak eta denak batera eskualdatzen direnean), eta etxadiaren eta beraren jabegoen jabari osoa edo haien biziarteko gozamina enborreko ahaideei kostu bidez eskualdatzeak ere bai (eskualdaketa hori Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean arautu da) %4ko karga-tasa jasango dute.

- c) Aurreko bi idatz-zatietan xedatuta dagoena gorabehera, etxebizitzaren eskualdaketek, orokorrean, garaje plazen eskualdaketak barne direla (gehienez bi eta beraien eranskinak, eraikin berekoak eta denak batera eskualdatzen direnean), %2,5eko karga-tasa jasango dute, eskuratzailerak familia ugariaren titularra bada, edo honako kasu hauetako batean badago:

- 120 metro karratu baino gehiago eraikita ez dituzten etxebizitzak eskualdatzea, eskuratzailen kopurua edozein izanda ere.
- 120 metro karratu baino gehiago eraikita dituzten familia bakarreko etxebizitzak eskualdatzea, baldin eta eraikina dagoen lurzatiak ez badauzka 300 metro karratu baino gehiago, eskuratzailen kopurua edozein izanda ere. Familia bakarreko etxebizitzatzat joko da sarrera independentea, ongi isolaturikoa, binakakoa, itsatsita edo lerroan duena.

Eraikitako azalera, kanpoko zein barruko fatxaden lerro perimetralen eta mehelinen ardatzen barnean dagoen eremuaren azalera izango da. Estalita dauden hegalkinak, balkoiak edo terrazak eraikitako azalera zenbatu behar dira, alboetan hormek mugatzen badituzte. Bestela, haien azalaren %50 besterik ez da zenbatuko, modu berean neurtuta. Eraikitako azalera kalkulatzeko, inola ere ez da zenbatu behar erkidegoaren elementuen zati proportzionalaren azalera.

Idatz-zati honetan aurrez ikusita dauden ondorioetarako, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitza eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

%2,5eko tasa aplikatzeko ondokoak bete behar dira:

1. Eskuratzailak tasa hori lehenago etxebizitza horren edo beste baten eskuraketan aplikatu ez izana, eskuratutako titulartasun ehunekoa edozein izanda ere.
2. Etxebizitza eskuratzailaren ohiko etxebizitza izan behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauaren 89. artikuluko 8. paragrafoan eta hura garatu duten arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Baldintza hori betetzen dela frogatzen duen dokumentazioa etxebizitza eskuratzen denetik hamabi hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da. Hori egiaztatzeko, zuzenbidean onartuta dauden frogabideak erabil daitezke. Nolanahi ere, preskripzio epearen barruan etxebizitza ohiko etxebizitza erabiltzen ez dela egiaztatzen bada, tasa %4ra igoko da.

Zergapekoa pertsona fisikoa bada eta eragiketa jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoen lokal bat etxebizitza izateko gaitzea bada, Zerga Administrazioak, eskaera jasoz gero, Zergaren kargarengatik ordaindutako zenbatekoaren eta eskualdatutako higiezinari b) eta c) idatz-zatietan adierazten diren zerga-tasen arteko egokia dena aplikatzearen emaitzako kopuruaren arteko diferentzia itzuliko du. Nolanahi ere, tasa hori aplikatzeko ezarritako betekizunez gainera zergapekoak lokala etxebizitza gisa lehenengoz erabiltzeko edo okupatzeko lizentzia daukala frogatu behar du eskualdaketa gertatzen denetik 18 hilabete pasatu baino lehen. Itzulketak ez du sortuko berandutza korriturik.

- d) %4 higiezinaren eta abereen eskualdaketak direnean, bita haien eraketa eta lagapen eskubideak ere, berme-eskubide errealek alde batera utzita.

Tasa hori Balio Erantsiaren gaineko Zergari edo erabilpen turistikoko ondasun higiezinaren txandakako aprobetxamendu eskubideei eta zerga arauari buruzko abenduaren 15eko 42/1998 Legean jasotako eskubideei buruzko Kanarietako Zeharkako Zergari lotuta ez dauden norbanako subjektuen arteko eskualdaketei ezarriko zaie, haien izaera edonolakoa izanda ere.

Era berean, tasa hori atal honen gainerako idatz-zatietan sartuta ez dauden egintza mota guztiei ere ezarriko zaie.

- e) %1 berme-eskubide errealek eraketa, pentsioak, fidantzak edo maileguak direnean, baita obligazio bidezkoak ere, eta mota guztietako kredituen lagapena ere bai.

2. Izaeraren, helburuaren, erabileraren edo aplikazioaren zioz Zergaren mendeko ondasunak legeei begira kalifikatzeko kontutan hartuko da Zuzenbide Zibilak edo, horren ezean, Administrazio Zuzenbideak horri buruz xedatzen duena.

12. Artikulua.

1. Hiri-finken errentamenduetan zerga-zorra ordaindu ahal izango da efektu tinbredunak erabilia, ondorengo eskalaren arabera:

Zerga oinarria: hileko batez besteko errentaren zenbatekoa		Zerga-kuota
Euroatik	Eurotaraino	Euroak
0,00	300,00	43,25
300,01	900,00	130,00
900,01	Hortik gora	1,50 euro, 10 euro edo zatikiko

2. Zerga esku-dirutan kitatuko da, karga-eskala horren arabera, errentamenduak eratzean efektu tinbredunak erabili ez badira zerga-kuota lortzeko.

V. KAPITULUA ERREGELA BEREZIAK

13. Artikulua.

1. Administrazio emakidek, beti ere, eskubide-eraketa moduan ordainduko dituzte tributuoak, 11.b)artikuluaren ezarritako karga tasan, euren izaera, iraupena eta euskarri dituzten ondasunak direnak direla.
2. Zerga honen ondorioetarako, administrazio emakidekin parekatuko dira administrazio egintza eta negozioak, berauen mota edo izena dena dela, horien bitartez, zerbitzu publikoen kudeaketa ahalmenen ematearen ondorioz edo jabego edo erabilera publikozko ondasunen erabilera berezia edo ustiapen berezia ematearen ondorioz, partikularren aldeko ondare aldaketa gerta dadinean.
3. Arau orokorrez, zerga oinarria zehazteko, emakidarako sortarazitako eskubidearen egiazko balioa, emakidadunari ezarritako beharkizunen izaeragatik ondoren adierazten direnetarik aplikagarri gerta dadin edo daitezzen erregela edo erregelak aplikatuz finkatuko da:
 - a) Administrazioak emakidadunak ordaindu beharreko prezio edo kanon kontzeptuz kopuru bat finkatzen badu, kopuru horretan.
 - b) Administrazioak kanona, prezioa, partaidetza edo gutxieneko mozkin ezartzen badu, emakidadunak aldizka ordaindu beharrekoa, eta emakidaren iraupena urtebete baino luzeagoa ez bada, aldizkako prestazioen guztirako batura. Emakidaren iraupena urtebete baino luzeagoa bada, emakidadunak urtean ordaintzen duen kopuruaren kapitalizazioa, iraupenaren arabera, %10 aplikatuta.

Baldin eta erregela hau aplikatzeko prezioen berrikuspenaren klausulak, erreferentziatzen haien bilakaeraren indize objektiboak hartzen dituztenak, aplikatzearen ondorioz aldatzen den urteko kopurua kapitalizatu behar bada, lehenengo urteko kapitalizatuko da. Urteko kopurua beste inguruabar batzuen arabera aldatzen bada eta emakida egiten denean haien arrazoi matematikoa ezagutzen bada, emakidadunak emakidaren iraunaldian ordaindu beharreko kopuruaren batz bestekoa kapitalizatuko da.

- c) Emakidadunak ondasun jakin batzuk Administrazioari itzuli behar badizkio, haiek itzulketa egunean duten kontabilitate balio garbia (zenbatetsia) eta itzulketaren gastuak konputatuko dira. Ondasunen kontabilitate balio garbia kalkulatzeko, Sozietateen

gaineko Zergarako onetsitako amortizazio-tauletako batez besteko portzentajea aplikatuko da

4. Emakidaren izaeragatik, zerga oinarrian aurreko ataleko erregelei jarraituz ezin finka dadin kasu berezietan, honako erregelei jarraituz finkatuko da:
 - a) Ustiapen, erabilera edo probetxamenduari atxikitako aktibo finkeen balioari 100eko 2a aplikatuz emakidak dirauen urte bakoitzeko, gutxienezkoa 100eko 10ekoa delarik eta gehienezkoa aktiboen baliotik gorakoa izan gabe.
 - b) Aurreko balioztapenaren ezean, dagokion Administrazio Publikoak finkaturikoa hartuko da.
 - c) Aurreko bi erregelaren ezean, interesatuek aitorturiko balioa, Administrazioak Foru Tributu-Arau Orokorreko 52. artikuluan adierazten diren bideez egiaztatzeko duen eskubidearen kaltetan gabe.

14. Artikulua.

1. Jabaria tinkotzean, jabe soilak Zerga honen zioz tributuak ordainduko ditu bere ondarean sar dezan eskubidearen balioari begiratuz.
2. Zergapeko kontratuen agintzak eta aukerak hauekin parekatuak izango dira, oinarritzat hitzartutako prezioa hartuz eta, honen ezean, edo txikiagoa balitz, kontratu horiei aplikagarri zaien oinarriaren %5a.
3. Atzera-klausuladun ondasun eta eskubideen eskualdaketetan, oinarritzat, haien frogaturiko balioaren bi herenaz berdina edo handiagoa balitz, aitortutako prezioa izango da. Atzeraegin-eskubidearen eskualdaketan, balio horren herena izango da, aitortutako balioa handiagoa izan dadinean salbu.

Atzera indarrezko eskubidea jardun dadinean, oinarritzat atzera eragindako ondasun edo eskubideen frogaturiko balioaren bi herenak izango dira, beti ere atzera egitearen prezioa adinekoa edo handiagoa izan dadinean.
4. Enfiteusi eta gordetze-zentsuen eraketan, kontzeptu honen ziozko likidazioaren kalterik gabe, ondasunen lagapenari dagokiona izan dezaten balioan, kapitala kenduz, igorpenduko da.
5. Transakzioetan, Zerga, auzizko ondasun edo eskubideak adjudikatu, aitortu edo ezagut ditzan tituluaren arabera likidatuko da, eta hura agertuko ez balitz, kostubidezko kontzeptuan.

15. Artikulua.

1. Mailegu baten bermean eginiko finantzen eta hipoteka, bahi eta antikresi eskubideen eraketak, bakarrik maileguaren kontzeptuaren zioz ordainduko ditu tributuak.
2. Kreditu-kontuak, zor-aitorpenak eta ordaindutako gordailua mailegu pertsonaltzat likidatuko dira.

16. Artikulua.

Bahi, hipoteka edo antikresi-hartzekodunaren eskubideen ordainezarketa eskubide-eskualdaketatzat joko da eta 11.1.c) artikuluan ezarritako tasaren arabera ordainduko ditu tributuak.

17. Artikulua.

Kredituak edo eskubideak eskuratuz gero, haien bidez ondasun jakinak eta zenbatetsi ahal direnak eskuratuko badira, ondasun eta eskubideok eskualdatzen direnean aplikatu beharreko kontzeptu eta tasa euren arabera ordaindu beharko da Zera. Hala ere, eraikitzen ari diren higiezin zerga oinarria kreditua edo eskubidea eskualdatu denean ondasunak eduki duen benetako balioa da (ezin da izan lagapenean ordaindutako kontraprestazioa baino gutxiago).

17.bis Artikulua.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturik eta salbuetsita ez dauden enpresen ondasun higiezin eskualdaketa guztiak, tributu horren arabera likidatuko dira salbuespenik gabe, 27. artikulua Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko kargari buruz ohartarazten duenaren kaltetan gabe.
2. Aurreko zenbakian jarritakoa gorabehera, autolikidazioa Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren "kostubidezko ondare eskualdaketen" modalitateaz egiten bada, horrek ez ditu, inoiz ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren peko subjektu pasiboak kontzeptu honen zioz dituzten tributu betebeharretatik iare utziko, aipatu "kostubidezko ondare eskualdaketen" modalitateagatik, hala egonez gero, bidegabeko sarrerak itzultzeko eskubidearen kaltetan gabe.

17.ter Artikulua. Saka-eskubidea eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea.

1. Lur Lauan dauden ondasun tronkalak besterentzen direnean, senide tronkalek, foru deiak egin eta gero, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila aplikatu eta ondasunak lehentasunez eskuratzeko eskubidea baliatzen badute, peritu-tasazioaren bidez zehaztutakoa hartuko da eskuraketa-baliozat, halako tasaziorik egin bada.
2. Ondasun tronkalak besterendu baino lehen foru deirik egin ez, eta horren ondorioz, saka-eskubidea erabiltzeko, senide tronkalen batek besterentzea deuseztatzeko akzioa egikaritzen badu, senide tronkalak ordaindu behar duen prezioa zehazteko peritu-tasazioa egingo dute berariaz izendatutako pertsonak, eta tasazio horren bidez ezarritakoa hartuko da eskualdaketa-baliozat, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila aplikatuz.

Kasu horretan, ordaindutako zergaren itzulketaren eskatzeko eskubidea izango du erosleak, foru arau honetako 58. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, eratziki beharreko gutxieneko balioa zehazteko arau teknikoetan aipatutako ondasun tronkalak besterentzen direnean, arau tekniko horiek erregelamenduz ezarrita daudelarik, foru arau honen 44. artikuluan balioak egiaztatzeko arautzen den prozedura aplikatuko da.

II. TITULUA SOZIEATE-ERAGIKETAK

LEHEN KAPITULUA EGITATE ZERGAGARRIA

18. Artikulua.

1. Honako hauek dira zergapeko eragiketak:
 - 1.a. Sozietatea eratzea, sozietatearen kapitala gehitzea eta gutxitzea, eta sozietatea desegitea.
 - 2.a. Bazkideen ekarpenak, sozietatearen kapitala gehitu ezean.

- 3.a. Sozietatearen zuzendaritza egoitza edo sozietatearen egoitza Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzea, Europar Batasuneko estatu batean egon ez badira..
2. Ez daude zergapean:
- 1.a. Birmoldaketa eragiketak.
- 2.a. Sozietatearen egoitza edo zuzendaritza egoitza Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzea.
- 3.a. Sozietatearen eraketa eskritura edo estatutuak aldatzea, eta bereziki sozietatearen helburua aldatzea eta iraunaldia aldatzea edo luzatzea.
- 4.a. Akzioen jaulkpen primek eskusiboki eraturako erreserben kontura egiten diren kapital zabalkuntzak.
- 5.a. Ondoren aipatuko diren aktibo eta pasiboen eskualdaketa, nahiz eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 90. eta 101. artikuluek xedatzen dituzten eragiketekin bat ez egin, betiere, emaitza ekonomiko baliokideak lortzen badira.
- a) Inbertsio-koefizienteei, norberaren baliabideei eta finantza bitartekarien informazio betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen 8. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letran aipatzen duen babeserako erakunde-sistema eratzeke eta zabaltzeko egindakoak.
- b) Kreditu-entitateak berregituratzeko prozesuetan Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funttsaren esku-hartzearekin egindakoak. Funttsa hori bankuak berregituratzeari eta kreditu-erakundeen baliabide propioak indartzeari buruzko uztailaren 26ko 9/2009 Errege Dekretuaren 7. artikulua aipatzen du.

19. Artikulua.

1. Sukurtsal edo establezimendu egonkorren bitartez Bizkaiko Lurralde Historikoan trafikoko eragiketak egiten dituzten erakundeek, baldin eta sozietatearen egoitza eta benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean badaude, Zergaren karga jasango dute, Espainiako erakundearen kontzeptu eta baldintza berak aplikatuta, eragiketaren horietan erabiltzen duten kapitalaren arabera.
2. Sozietatearen egoitza eta benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasuneko estatu batean badaude, Espainia ez beste batean, sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bitartez Bizkaiko lurraldean egiten diren trafikoko eragiketak ez dira egongo zergapean sozietate eragiketen modalitatean. Halaber, erakundearen benetako zuzendaritzaren egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean badago eta sozietatearen egoitza Espainia ez Europar Batasuneko beste estatu batean badago, aipatu eragiketak ez dira zergapean egongo.

19.bis Artikulua.

Sozietate eragiketen gaineko kargaren ondoretarako, birmoldaketa eragiketak dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 90. artikuluko 1, 2, 3 eta 5. idatz-zatietan zehaztutako bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak eta balore trukaketak, bai eta 101. artikuluan aipatutako diruzkoak ez bestelakoa ekarpenak ere.

20. Artikulua.

Zerga honen ondorioetarako honako hauek parekatuko dira sozietateekin:

- 1.a. Sozietate izan ez eta irabazte-xedea duten pertsona juridikoak.

2.a. Partaidetzako kontuen kontratuak.

3.a. Untzien jabekidetzak.

4.a. Enpresa jarduerak egin ditzan "inter vivos" egintzen bidez eraturiko ondasun-erkidegoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan ezarritakoaren kalterik gabe.

5.a. "Mortis causa" egintzek eratu edo antolaturiko erkidegoa bera, sortzailearen negozioaren ustiapenak hiru urte baino gehiagotako epe batetan banaezintasun erregimenean jarraitzen duenean. Likidazioa orduantxetik egingo da, erkidegoa adierazitako epea igaro baino lehenago desegiten bada bidezko dadin itzulketarako eskubidearen kalterik gabe.

21. Artikulua.

Zergadun gisa, eta alderdiek aurka ezarritako hizpaketak gorabehera, ondokoek ordaindu behar dute Zerga:

- a) Sozietate bat eratzen denean, kapitala gehitzen denean, benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietatearen egoitza aldatzen denean eta bazkideek ekarpenak egiten dituztenean sozietatearen kapitala gehitu gabe, sozietateak.
- b) Sozietateak desegitean eta sozietate kapitala murriztean, bazkideak, jabekideak, erkideak edo partaideak jasotako ondasun eta eskubideengatik.

22. Artikulua.

Sozietate bat eratzen denean, sozietate baten kapitala gehitzen edo murrizten denean, bazkideek ekarpenak egiten dituztenean sozietatearen kapitala gehitu gabe, sozietateak desegiten denean eta benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietatearen egoitza aldatzen denean, Zergaren ordainketaren erantzule subsidiarioak dira Zergaren kargapeko egintza juridikoan parte hartzen duten sustatzaileak, administratzaileak edo likidatzaileak, baldin eta ekarritako kapitalaren ardura hartu badute edo ondasunak eman badituzte.

II. KAPITULUA OINARRI ZERGAGARRIA

23. Artikulua.

1. Bazkideen erantzukizuna nolabait mugatzen duten sozietateen kapitala osatu eta zabaltzean, zerga oinarria kapitala hasiera batean finkatzen den zenbateko nominalarekin bat edo jaulkipen primak eranstean finkatutako zenbateko nominalarekin bat etorriko da, primak bidezkoa denean eskatzen direla.
2. Aurrekoak ez beste sozietate batzuek egindako eragiketen kasuan eta sozietatearen kapitala gehitzen ez duten bazkideen ekarpenen kasuan, zerga oinarria ekarpenaren balio gordina izango da, eta ekarpenaren balio gordina honela kalkulatu da: ekarritako ondasunen eta eskubideen benetako balioetik karga eta gastu kengarriak eta ekarpenaren ondorioz sozietatearen kargura geratzen diren zorren zenbatekoa kenduko dira.
3. Benetako zuzendaritzaren egoitza edo sozietatearen egoitza aldatzen bada, zerga oinarria sozietatearen hartzeko likidoa izango da, hain zuzen ere erabakia hartzen den eguneko hartzeko likidoa.
4. Sozietate baten kapitala murriztu denean eta sozietatea desegiten denean, zerga oinarria bazkideei emandako ondasun eta eskubideen benetako balioa izango da, gastuak eta zorrak kendu gabe.

24. Artikulua.

Tributu-kuota oinarri likidagarriari ehuneko 1eko karga-tasa aplikatuz lortuko da.

III.TITULUA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK

LEHEN KAPITULUA PRINTZIO OROKORRAK

25. Artikulua.

1. Hurrengo artikuluetan aurreikusten diren terminoetan hurrengook jartzen dira kargapean:
 - a) Notario-agiriak.
 - b) Merkatal agiriak
 - c) Administrazio-agiriak.
2. Tributua kuota aldakor edo finkoen bidez ordainduko da, formalizatu, eskuetsi edo eman dadin agiriak, bere jadanekotasunaren uneren batetan, gaitzat kopuru edo gauza baliozgarria duen ala ez duenari begiratu.
3. Notario-agiriak halabeharrez paper zildaikatuan emango dira.

II. KAPITULUA NOTARIO-AGIRIAK

26. Artikulua.

Zergaren pean egongo dira eskriturak, aktak eta lekukotzak, 29. artikulua ezartzen dituen terminoetan.

27. Artikulua.

1. Balioz neurgarria den kopuru edo gauza xede zuzentzat duten eskrituren lehenengo kopietan aitortutako balioa oinarri gisa erabiliko da, administrazioaren egiaztapenaren kalterik gabe.

Bermeko izatezko eskubideetan eta bermedun maileguak dokumentatzen dituzten eskrituretan, zerga oinarria Foru Arau honen 10. artikulua 2. idaztiaren c) letran xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

Hipoteken mailaren edo bestelako berme eskubideren baten geroratze eta hobekuntzan, zerga oinarria maila okerragotzen zaion eskubideari esleitutako guztirako erantzukizuna izango da. Maila berdinketan, zerga oinarria lehenik ezarritako berme eskubideari dagokion guztirako zenbatekok zehaztuko du

2. Notario-aktetan aurreko atalean xedaturikoa behartuko da, protestoarenetan salbu, honakoan oinarria protestaturiko efektuaren izendun balioaren edo protesta sortarazi duen kopuruaren herenarekin bat etorriko baita.
3. Egintza, gai balioztaezineko dela ulertuko da haren jadanekotasun osoan zehar, baita haren azkenketaren unean ere, oinarriaren zenbatekoa ezin mugarri daitekeenean. Hau ezin izango balitz finkatu egintza egitean, Zerga gai balioztaezina bailitzan exijituko da, likidazioa zenbatekoa mugarririk gera dadinaren osatzearen kalterik gabe.

28. Artikulua.

Ondasun edo eskubidearen eskuratzailerak eta, haren ezean, notario-aktak galda edo eska ditzaten pertsonak edo beren interesean emanak dituztenak subjektu pasibo izango dira.

29. Artikulua.

1. Notarioen eskritura eta akten jatorrizkoak eta aldakiak, bai eta lekukotzak ere, beti luzatuko dira pleguko 0,15 euro balio duen paper tinbredunean. Aldaki bakunak ez daude zergapean.
2. Notarioen akta eta eskrituren lehenengo kopiek 100eko 0,5nako karga-tasan ordainduko dute zerga egintza edo kontratuei begira, baldin eta baliozta daitekeen gauza edo kopurua badute xede, Erregistro batzuetan erregistra daitekeen egintza edo kontraturik badute eta beraiek dituzten egintzak edo kontratuak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren edo foru arau honen 1. artikularen 1 eta 2 zenbakietako kontzeptuen menpean ez badaude. Erregistro horiek honakook dira: Jabetza Erregistroak, Merkataritza Erregistroak, Espainiako Patente eta Marka Bulegoa, Edukitzaren Lekualdaketarik gabeko Bahi eta Higikorren Hipotekaren Erregistroak, Herri Administrazioen menpeko Kooperatiben Erregistroak edo Ondasun Higikorren Erregistroak.

Tasa berean eta efektu tinbredunak erabiliz ordainduko dute zerga protesto-akten kopiek.

30. Artikulua.

Aurreko 29.1 artikuluan xedaturikoa eskuesle berberaren izenean emandako bigarren eta jarraiko aldakiei izango zaie aplikagarri.

III. KAPITULUA Merkatal Agiriak

31. Artikulua.

1. Zergaren menpean hurrengoak daude: truke-letrak, igorpenaren funtzioa egiten duten edo haiek ordeztzen dituzten agiriak, gordailuko gordekin nahiz ziurtagiri eskualdagarriak, hala nola saldoz, epea hamazortzi hilabetetakoa baino luzeagoa ez dutela jaulkituriko ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta gainerako antzeko tituluak, inoren kapitalen ordezkagarriak izanik, jaulkipenagatik ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzultzeko konprometituaren arteko diferentziagatik ezarritako kontraprestazio bat ordaindua dutenak.
2. Agiri batek igorpenaren funtzioa betetzen duela ulertuko da leku batetik bestera fondoak bidaltzea edo antzeko zeinua benetakotzen duenean, edo berau emana izan denean ordainketa agindu bat inpliketzen duenean edo eta bertan "agindura" klausula agertzen denean.

32. Artikulua.

1. Ordainketa, igorpenetzaileak egin beharra dauka, truke-letra atzerrian emana izan ezik, halakoan Bizkaiko lehen edukitzaileak egin beharko duela, Espainian lehen edukitzailea bada eta bere ohizko egoitza nahiz helbide fiskala Kondaira Lurralde honetan badauka.
2. Igorpen-agiriak nahiz truke-letren ordezkakoak, hala nola gordailuko gordekinak eta ordaindukoak, bonuak, obligazioak eta saldoz jaulkitako antzeko tituluak kargatzen dituen tributuen subjektu pasibo, haiek ematen dituzten pertsonak nahiz Entitateak izango dira.

33. Artikulua.

Zerga ordaintzearen erantzule solidario, aurreko artikulua aipatzen dituen efektuen negoziaketan nahiz kobraketan parte hartzen duen edozein pertsona zein entitate izango da.

34. Artikulua.

1. Truke-letran oinarritzat igorpendutako kopurua hartuko da, eta gordailu-ziurtagirietan, haien zenbateko izendatua.

2. Truke-letren mugaeguna jaulkipen datatik zenbatuta, sei hilabetetako baina luzeagoa izan dadinean, oinarriaren bikoitzari dagokion Zerga exijituko da.

Ekintza nahiz negozio juridiko bati dagokion truke-letraren orde, bi zein letra gehiago emango balira, Zergaren urripena sortuz, doazkien oinarriak batzeari ekingo zaio diferentzia eskatu ahal izateko. Adierazitako zatikaketa ez da sortuzat joko efektuen mugaegunaren daten artean hamabost egun baino gehiagotako diferentzia dagoenean edo agiri bidez igorpen mailakatuak erabiliz epeka kobratzea itundu denean.

3. Lehenago finkaturiko edukak, halaber, igorpenaren funtzioa betetzen duten nahiz truke-letrak ordeztan dituzten agiriei aplikatuko zaizkie, artikuluko honetako 2. ataleko lehen lerroaldean aipatutakoa izan ezik.
4. Saldoz jaulkitako ordainduko, bonu, obligazio eta gainerako antzeko tituluetan, inoren kapitalen ordezkagarriak direla, jaulkipenagatik ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzultzeko konprometituaren arteko diferentziagatik ezarritako kontraprestazio bat ordaintzen bada, oinarria jaulkitzaileak itzultzeko konpromezua hartzen duen kapitalaren zenbatekoa izango da.

35. Artikulua.

1. Truke-letrak beren zenbatekoari dagokion efektu zigilatua erabiliz emango dira nahitaez. Letra zenbateko gutxiagoko efektu zigilatuz ematen bada, agiri horrek ez du legeek ematen dioten bete-arazte-eraginkortasunik izango. Tributu ordainketa honako eskala honen arabera egingo da:

Zerga-oinarria (euroak)	Euroak
Gehienez 24,04 euro	0,06
24,05 - 48,08 euro	0,12
48,09 - 90,15 euro	0,24
90,16 - 180,30 euro	0,48
180,31 - 360,61 euro	0,96
360,62 - 751,27 euro	1,98
751,28 - 1.502,53 euro	4,21
1.502,54 - 3.005,06 euro	8,41
3.005,07 - 6.010,12 euro	16,83
6.010,13 - 12.020,24 euro	33,66
12.020,25 - 24.040,48 euro	67,31
24.040,49 - 48.080,97 euro	134,63
48.080,98 - 96.161,94 euro	269,25
96.161,95 - 192.323,87 euro	538,51

192.323,87 eurotik gorakoengatik 0,018 euro ordainduko da 6,01 euro edo zatiki bakoitzeko, eta beti dirutan likidatuko da. Likidazioa ez bada foru arau honen 52. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako epean aurkezten, legeek ematen dizkieten indar betearazlea galduko du.

2. Igortze-funtzioa betetzen duten edo truke letren ordeko erabiltzen diren dokumentuek eskudirutan ordainduko dute zerga, goiko zergapetze eskalaren arabera. Horretarako, halako ordainketetarako jarritako ereduak erabiliko da, foru arau honen 52. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako epean aurkeztu beharko dena. Epe horren barnean aurkezten ez badira, legeek ematen dien betearazte-indarra galduko dute.

3. Foru Aldundiak, merkataritzako trafikoa edo mekanizazio- prozesua aintzat hartuta, exijitu ahal izango du neurri egokiak ezartzea merkataritza agiria behar bezala identifikatzeko eta dagokion ordainketa eskudiruz egiteko.
4. Hamazortzi hilabete baino epe laburragoarekin saldoz jaulkitako ordainduko, bonu, obligazio eta besteren kapitalaren ordezkagarri diren antzeko tituluetan, baldin eta kontraprestazioa ordaintzen bada jaulkipenean ordaindutako zenbatekoaren eta mugaegunean itzultzeko konprometituaren arteko diferentziagatik, 0,018 euroko karga jasango da 6,01 euroko edo zatikiko. Karga hau eskudirutan likidatuko da.

36. Artikulua.

Foru Aldundiak efektu zildaikatuen era, irarketa, mota, ezaugarriak eta zenbaketa, zildaikaketa zuzenean hartzeko kasuak eta prozedura, efektu horien trukaketa egiteko baldintzak eta berorien balio gabeketa egiteko modua ezarriko ditu.

37. Artikulua.

1. Merkatal agiriak ematen Zerga ordaintzeak bertan dauden klausula guztiak betetzen ditu, kontzeptu honen zioz tributuak ordaintzeari dagokionean.
2. Atzerrian emandako eta Espainian edozelako ondorio juridikorik sortzen duten truke-letrak hartzen dituen lehen edukitzaileak itzuliko ditu eskudirutan.

IV. KAPITULUA ADMINISTRAZIO-AGIRIAK

38. Artikulua.

Zergaren menpean egongo dira Erregistro Publikoetan egiten diren prebentziozko idatzizko oharra, baldin eta beraietako gaia baliozta daitekeen eskubidea edo interesa bada eta ofizioz ordenaturik ez badaude, eta epai-agintaritzak aldezkatu behar du.

39. Artikulua.

Zergadunaren modura ordaindu beharko du prebentziozko idatzizko oharra eskatzen duenak.

40. Artikulua.

Oinarritzat, aurrearretazko idaztoharren bidez bermatzen, argitaratzen edo eratzten den eskubide edo interesaren balioa hartuko da.

41. Artikulua.

...

42. Artikulua.

Erregistro Publikoetan egiten diren prebentziozko idatzizko oharrek 100eko 0,50nako kargatasa ordainduko dute zerga, eskudirutan.

IV. TITULUA XEDAPEN KOMUNAK

LEHEN KAPITULUA ONURA FISKALAK

43. Artikulua.

Kasu bakoitzean honako Foru Arau honen 1. artikulua aipatzen dituen hiru karga-tasei aplikagarri zaizkien onura fiskalak hurrengoak izango dira:

I.

A) Zergatik salbuetsita egongo dira:

- a) Estatu eta lurralde nahiz erakunde mailako herri administrazioak eta horien sailak (ongizatea, kultura, Gizarte Segurantzak, irakaskuntza edo zientzia).
- b) Irabazizkoak ez diren erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko Foru Arauko 4. artikuluan aipatutako irabazizkoak ez diren erakundeak, baldin eta Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera lotuta badaude zerga-araubidera.
- c) Aurrezki-kutxak, euren lan sozialera zuzen-zuzen lotutako eskuratzeen ondorioz.
- d) Eliza Katolikoa eta Espainiako estatuarekiko lankidetzakordioak sinatuta dituzten elizak, konfesioak eta komunitate erlijiosoak.
- e) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta horren barruko Errege Akademiak, baita autonomia erkidegoetan Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten erakundeak.
- f) Gurutze Gorria eta Espainiako Itsuen Nazio Erakundea.
- g) Lege biltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoak.

B) Salbuetsita egongo dira:

1. Salbuespena espainiar Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen edo Hitzarmenen bidez emakidatzen deneko eskualdaketak eta gainerako egintza eta kontratuak.
2. Atzera indarrezko lege baten bidez egin daitezkeen eskualdaketak, hura aurka jasaten duen eskuratzailak jadaneko ordaindua baldin bada Zerga.
3. Ezkontideek ezkontideen sozietateari egindako ondasunen eta eskubideen ekarpenak, hura desegitean ekarpenok ordaintzeko ezkontideen alde egindako adjudikazioak eta horregatik ezkontideei egiten zaizkien eskualdaketak.

Salbuespen hori izango dute aitortutako adjudikazio-gaindinek ere, baldin eta senar-emazteak banantzearen edo haien ekonomi araubidea aldatzearen ondare-ondore diren ondasunen adjudikazioetatik ateratzen badira eta ezkontideen sozietatearen ondasunak ezkontideetako bati adjudikatzearen beharrezko ondorio badira.

Gauza bera aplikatuko da aurreko paragrafoetan aipatu balizkoetan, Izatezko Bikoteak arautzekoa den maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpenak, adjudikazio eta eskualdaketek dagokienez.

4. Ondasunen prezioa osa dezaten diru-emateak edo eta zerbitzu pertsonalak, kredituak nahiz kalte-ordainak ordaintzeko egin daiteztenak.

Era berean, salbuetsiak izango dira hipotekazko maileguren eskriturak betearazteko, Kreditu eta Aurrezki Organismoek emandako kopuruen aktak, haien Zerga behar bezala likidatua izan bada edo bidezko salbuespena adierazi bada.

5. Estatuak eta Administrazio publikoek, lurraldekoek nahiz erakundezkoek emakidaturiko interesik gabeko aurrekinak.
6. Lur-zatien baterakuntzak eragiten dituen eskualdaketa eta gainerako egintza eta kontratu guztiak, landa-lurreko finken nahitaezko trukaketek eragindakoak eta behar bezala baimendutako borondatezko trukaketak, baita berrogei urtetik gorako errentamenduetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea egikaritzearen ondoriozkoak diren eta Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilean araupetzen diren eskuraketak ere, baldin eta onibarra eskuratu eta hurrengo sei urtean eskualdatzen ez bada.
7. Jardunguneko jabeek kontzertazio batzordeei eginiko ekarpenen ondorioz egiten diren lur eskualdaketak eta jabe horiei batzordeek berek jaso dituzten lurren neurrian egiten dizkieten esleipenak.

Aurreko paragrafoetan seinalaturiko lurren birzaketak sortzen dituen egintza eta kontratu berberak.

Aurreko kasuetarik edozeinetan, jabe bati adjudikatu zaizkion lurzoruen balioak jabeak berak jarritako lurzoruei proportzioan dagokiena gainditzen duenean, gaindikinari dagozkion likidazioak igorriko dira.

Salbuespen hau hirigintzako legeriak ezarritako beharkizun guztiak betetzeak baldintzatuta egongo da.

8. Tutoreek beren karguak burutzearen bermetzat egiten dituzten bermeei dagozkien egintzak.
9. ...
10. Hipoteka merkatua erregulatzen duen legeria berezian ezarritako beharkizunak betetzen dituzten bonu eta hipoteka zedulak.
11. Foru arau honetako 18. artikuluko 2. idatz-zatiko 1., 2., 3. eta 5. zenbakietan eta 19. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako sozietate eragiketak, kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetako kargari dagokionez.
12. Zerga honetan, sozietate kooperatiboek eta eraldakuntzako nekazaritzako sozietateek Kooperatiben Zerga Araudiari buruzko urriaren 14ko 9/1997 Foru Arauan aintzatetsitako zerga onurak izango dituzte.
13. Orubeak eskualdatzea eta babes publikoaren erregimenpeko eraikinak eraikitzeke eremu-eskubidearen lagatzea; babes publikoko etxebizitzaren sustapen, eraikuntza edo lehen eskualdaketaekin zerikusirik daukaten egintzak eta kontratuak formalizatzeko eskritura publikoak (Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko kargari dagokionez); babes publikoko etxebizitzaren jabegoaren lehen inter vivos eskualdaketa (behin betiko sailkatu eta hurrengo sei urtean barruan gertatzen bada); behin betiko kalifikazioa eduki baino lehen etxebizitza horiek eraikitzeke jaso diren maileguak (hipotekadunak izan zein ez izan); xede eskusibotzat babes publikoaren erregimenpeko eraikinak egitea duten sozietateen eraketa, kapital zabalketa, transformazioa eta bategitea.

Orubeak eskualdatzeari eta gainazalaren eskubidea lagatzeari dagokien onura aitortzeko, kontratua babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko xedeaz eskuesten dela adierazi beharko da kontratu-agirian bertan, edo aurkezten denean beren-beregi aditzera emanda; hala ere, ondorioz gabe geratuko da aitorten hori egiten denetik behin behineko kalifikazioa lortu gabe hiru urte igarotzen badira edo edonoiz eta edozergatik eraikuntza horren proiektua ezin bada burutu.

Salbuespena behin-behinekoz eskuetsitakotzat joko da, eta horretarako baldintza izango da kasu bakoitzean honelako etxebizitzetarako jadaneko xedapenek exijitzen dituzten beharkizunak betetzea.

Salbuespenaren behin-behineko aitortpena sortu zuten baldintzak beteko ez badira, edo beraz ondorioz gabe geratzen bada, interesdunak inguruabar horiek aitorten egokia eginez adierazi beharko ditu. Horrek behin betiko likidazioa egitea ekarriko du, eta horri dagozkion berandutze interesak exijituko dira.

Aitorten hori ez aurkeztea agiri bat ez aurkezteak sortzen duen hutsegitetzat joko da, hutsegite horri dagokion zigorra eskatzeko.

Edonola ere, behin betiko likidazioan, elementu guztiak berri-kusiko dira; nahitaez egiaztatuko dira balioak eta berandutza-interesak eskatuko dira.

Babes publikoko etxebizitzaren kontzeptuan etxebizitzak eta beren eranskinak baizik ez dira sartzen.

14. Eskualdaketak eta gainerako egintzak, xede soiltzat Zerga ordaindu deneko beste aurreko egintza batzuren eraginkortasun eza salbatzea dutenean, haien ez egotea nahiz baliogabetasuna inplikatzan duten akatsa baldin badute.
15. Sozietateak eratzea, kapitala gehitzea, sozietatearen kapitala gehitzea eragiten ez duten bazkideen ekarpenak eta sozietate baten benetako helbidea edo egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzea, baldin eta ez bata eta ez bestea aldatu aurretik Europar Batasuneko beste estatu batean kokatuta egon ez badira.
16. Eskudirutako gordailuak eta maileguak, zein tresna motatan gauzatzen diren alde batera utzita, ordaindukoak, bonoak, obligazioak eta antzeko tituluak barne. Zergarekiko albuespena gordailua edo mailegua dokumentatzen dituzten tituluen ondorengo eskualdaketari ere ezarriko zaio, baita ere saldoka, hamazortzi hilabeteko epetik gora ez, jaulkitako ordainduko, bono, obligazio eta antzeko gainerako tituluen gainean ezarri behar den egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga, jaulkipenean ordaindutako kopuruaren eta mugaegunean itzultzeko konpromisoan hartutako kopuruaren arteko aldearen ziozko kontraprestazioa ordaindu zaien besteren kapitalak ordezkatzan dituztenak, kopuruaren barruan industri edo negozioetako banketxeek jaulkitako kutxako bonoak barne daudelarik.
17. . Baserriaren eta bere jabegoaren jabari osoa edo bizi arteko gozamina senide tronkalei kostu bidez eskualdatzea, baldin eta finka nekazaritzako, basozaintzako edo abeltzaintzako ustiatzea bada eta eskualdatzaileak berak ustiatzen badu.

Salbuespena aplikatu ahal izateko, eskuratzailleak berak egin behar ditu, benetan eta zuzenean, goian aipaturiko jarduerak, finka eskuratu eta hurrengo sei urtean.

18. Foru Aldundiak onetsitako Bizkaiko Nekazal Sektorea Laguntzeko Plana erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen egintza eta kontratuak.
19. Babes publikoko etxebizitzan eskualdatzeak, herri administrazioek beren eskumenak gauzatzean egiten dituztenak.

Salbuespen hori honako kasu hauetan ere ezarriko da: babes publikoko etxebizitzan eskuratzeko eta adjudikazio prozeduraren arloan indarrean den

araudiaren babesaren pean, partikularren artean babes publikoko etxebizitza bat eskualdatzen bada, eta etxea jasotzen duena Eusko Jaurlaritzak izendatu badu.

20. Nahiz zuzenean nahiz entitate tartejarrien bidez, bahitutako ondareen lehengoratzegintzak formalizatzeko emandako eskritura publikoak, beti ere, azken balizko honetan, bahitua izandako ondasunen titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren eta entitate tartejarriaren artean den erlazioa egiaztatu ahal dadinean.
21. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 116. artikulua aipatzen dituen finantza errentamenduko eragiketak egin ohi dituzten enpresen alde egiten diren eraikuntza-eskualdaketak, eskualdatutako horiek, ondoren, eskualdatzailea ez den beste pertsona bati errentamenduan emateko, erosteko aukerarekin; betiere eragiketa horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita daudenean.

Onura hau eduki ahal izateko, nahitaezko beharkizuna izango da eskualdatzailearen eta eskuratzaile edo errentariaren artean zuzeneko edo zeharkako lotura harremanik ez egotea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

22. Errepidetik ibiltzeko motore mekanikodun ibilgailu erabilien eskualdaketak, eskuratzen duen enpresari ohiz halakoen salerosketan jarduten duena izan eta salmentarako eskuratzen dituenen.

Salbuespena behin-behinekotasunez emandakotzat joko da eta behin betiko egiteko, erositako ibilgailuaren salmenta eskuraketa dataren jarraiko urtearen barruan egina izatea egiaztatu beharko da.

23. Subrogazioa, martxoaren 30eko 2/1998 Legeak, hipoteka-maileguen subrogazioaren eta aldarazpenaren gainekoak, ezarritako eran eta betekizunekin zein baldintzekin, dokumentatzen duen notario-eskritura.
24. Berriztatze-eskritura publikoen lehen kopiak, hartzekodunak eta zordunak ados etorrita itundu dituzten hipoteka-maileguak aldarazten dituztenak, baldin eta hartzekoduna hipoteka-maileguen subrogazioari eta aldarazpenari buruzko martxoaren 30eko 2/1994 Legeko 1.artikuluan aipatutako erakundeetako bat bada eta aldaketa lege horretako 4.artikuluko 2.paragrafoan aurrez ikusitako egoera bati edo batzuei buruzkoa bada.
25. Administrazio emakidak, baldin eta beraien xedea errepideen, autobia edota autopistak, edo beraietako zerbitzuguneak ustiatzea bada; horrezaz gainera, emakidadunak sozietatea izan behar du eta beronen kapitala gehiena Bizkaiko Foru Aldundiarena izan behar da.
26. Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emandako Elkarren Bermeko Sozietateen kapitala eratu, gehitu edo gutxitzea, baita horiek gauzatzeko behar diren egintza eta dokumentuak ere.

Salbuespen bera aplikatuko zaio Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emandako Elkarren Bermeko Sozietatearen eta bermea alde eman zaion bazkidearen arteko harreman juridikoari aplikatuko zaio, baita harreman hori gauzatzeko sinatutako dokumentuari dagokionez ere.

Era berean, Ondarezko Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emandako Elkarren Bermeko Sozietatearen aldeko edozein bermeren ematea, arestiko lerroaldeak aipatutako harreman juridikoari dagokionez, baita gauzatzen diren dokumentuetarako ere.

Aurreko bi lerroaldeetan aurreikusitako salbuespenen barruan horietan aurreikusitako bermeen deuseztapena ere sartuko da.

27. Birfinkapen sozietateek aurreko idaztietan elkarrekiko berme sozietateentzat aipatu zerga onura berak izango dituzte, martxoaren 11ko 1/1994 Legearen 11. artikulua araberako jardueri doakia, nahitaez haien sozietate xedea osatu behar badute ere.
28. Kapital-arriskuko erakundeen eraketa eragiketak eta kapitala gehitzeko eragiketak, kapital-arriskuko erakundeak eta haien sozietate kudeatzaileak araupetu dituen azaroaren 24ko 25/2005 Legean ezarritakoa betez.
29. Alderdi Politikoei Bahitutako Ondasunak, 1936-1939 aldiko erantzukizun politikoei buruzko arautegia ezarriz, Itzuli eta Konpentsatzeko abenduaren 15eko 43/1999 Legean xedatutako ondasun eta ondare eskubideen itzulketa eta diruzko konpentsazioa.

30.

- a) Mailegu edo kreditu baten ordainketarako bermetzat egindako hipoteken eskubide errealeen eraketa edo lagapena jasotzen duten eskritura publikoen lehen kopiak, beti ere mailegu hori ohiko etxebizitza erosteko edo zaharberitzeko erabiltzen baldin bada.

Horretarako, ohiko etxebizitzatzat joko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 6/2006 Foru Arauko 89.8 artikuluan hala definitzen dena.

Idatz-zati honetako lehen lerrokadan aipatutako eskritura publikoan, lerrokadan jasotako baldintzak betetzen direla aipatu behar da, Zerga Administrazioak horiek egiaztatzeko dituen ahalmenak gorabehera.

- b) Alderantzizko hipoteken eraketa, subrogazioa, berriztatzea edo kitzatzea jasotzen duten eskritura publikoen lehen kopiak, abenduaren 7ko 41/2007 Legean aurrez ikusitakoaren arabera egiten badira. Lege horrek Hipoteka merkaturako arautzeko martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta hipoteka eta finantza sistemaren beste arau batzuk aldatzen ditu. Halaber, alderantzizko hipotekak eta mendekotasun aseguruak arautzen ditu, eta zerga arau jakin bat ezartzen
31. Seme-alaben aldeko mantenu pentsioen erreklamazioen ondoriozko bahimenduzko badaezpadako idatzoharrak.
 32. Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko Legean araupetutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen eraketa eragiketak eta kapitala gehitzeko eragiketak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude sozietate eragiketen modalitatean.

Aurreko legean araupetutako finantza inbertsioko funtsak ere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude, aurreko paragrafoan ezarritako hedadurarekin.

Aurrean aipatutako legeak araupetutako higiezinak talde inbertsioko erakundeak talde inbertsioko erakunde ez-finanziarioak badira eta beraien sozietate xedea hirilurreko denetarik higiezinak eskuratzea eta sustatzea bada, are lurra erostea ere, ondoren errentatzeko, aurreko bi paragrafoetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie zerga-ordainketarako.

Era berean, erakunde horiek zerga honen kuotaren %95eko hoberia izango dute alokatzeko diren etxebizitzaren eskuraketetan eta errentamendurako etxebizitza egiteko lurren erosketetan. Horretarako, bi kasuetan, Sozietateen gaineko Zergari

buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29.5. artikuluko c) eta d) letretan ezarritako higiezinak mantentzeko ezarri diren betekizun bereziak bete beharko dituzte, salbu eta, aparteko kasuetan, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak beren beregi horretarako baimena ematen badu.

Hipoteka tituluen funtsak eta finantza aktiboen tituluen funtsak salbuetsita daude sozietate eragiketen modalitatearen kargapeko eragiketa guztietan..

33. Konkurtsoei buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera epai bidez onetsitako hitzarmenetan ezarritakoa betetzeko kredituak kapital bihurtzeko xedearekin konkurtsoan adierazitako pertsona juridikoek egiten dituzten kapital zabalkuntzak.
34. Sozietateen gaineko Zergaren arautegian etxebizitzak errentatzen dituzten erakundeentzat ezarritako zerga-araubideari heldutako sozietateek eskuratzen dituzten etxebizitzak eskualdatzea, baldin eta gero haiek errentatuta lortutako errentei araubide horretan ezarritako hoberia aplikatu ahal bazaie.
35. "Etxebizitza Hutsaren Programari" (abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuan arautua) eta aldundien edo udalen etxebizitza egitasmo eta programei heldutako errentamenduak eta Sozietateen gaineko Zergaren arautegian etxebizitzak errentatzen dituzten erakundeentzat ezarritako araubide berezian ezarritako errenta-hoberia aplikatu ahal zaien errentamenduak.
36. Pertsona ezinduen ondare babestuei eginiko ekarpenak. Ondasun horiek babesten ditu Ezintasuna duten pertsonen ondarea babestu eta, horretarako, Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta Zerga Araudia aldatzen dituen Legeak.
37. Etxebizitzen lehenengo eskualdaketak dokumentatzeko egiten diren notario eskrituren lehenengo kopiak salbuetsita daude foru arau honetako 29. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako notario agirien gaineko kargatik.
38. Higiezin Merkatuko Inbertsioetako Sozietate Anonimo Kotizatuei buruzko urriaren 26ko 11/2009 Legean araupetutako higiezin merkatuko inbertsio sozietateak eratzeko eragiketak eta haien kapitala gehitzeko eragiketak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita daude sozietate eragiketen modalitatean, bai eta sozietate horiei diruzkoak ez bestelako ekarpenak egitea ere.

Halaber, Zergaren kuotaren %95eko hoberia izango dute errentatzeko diren etxebizitzen eskuraketetan eta errentamendurako etxebizitza egiteko lurren erosketetan, baldin eta 11/2009 Legeko 3. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako betekizun berezia betetzen bada.

39. Maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letrean xedatutako baldintzekin, babeserako erakunde-sistema bat eratzen duten kreditu erakundeak salbuetsita daude sozietatea eratzeagatik kargatik, bai eta elkartutako erakundeek harpidetzen bidez zein zuzenean egindako sozietatearen kapitalaren gehikuntzengatik eta ekarpenengatik jasaten den kargatik ere, baina horretarako ezinbestekoa da salbuespena ezarrita egotea babeserako erakunde-sistemari atxikitze kontratu-akordioan eta, hala denean, Ondare Eskualdaketen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren sozietate eragiketen modalitatean, integratzeko planean. Eragiketa horiek formalizatzeko behar diren egintzak eta dokumentuak ere salbuetsita daude.

Era berean, Sozietate Eragiketen modalitateak salbuetsita egongo dira bankuak berregituratzeari eta kreditu erakundeen baliabide propioak indartzeari buruzko uztailaren 26ko 9/2009 Errege Dekretu-Legeko 7. artikuluan aipatutako Bankuen Berregituraketa Ordenatua egiteko Funtsaren esku-hartzearekin egindako berregituraketa prozesuen ondorioz burututako eragiketak.

Halaber, Ondare Eskualdaketen eta Ekintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kargatik salbuetsita daude babeseko erakunde sistemako kideek kaudimen, likidezia eta bateratzeko elkarrekiko konpromisoak (maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letran aipatzen direnak) ezartzeko egiten dituzten kontratu- akordioak, bai eta haiek formalizatzeko prestatzen diren agiriak ere.

- II. Onura fiskalak ez zaizkie aplikatuko, inolaz ere, truke-letrei, hauek ordeztzen dituzten agiriei edo igorpenaren funtzioa egiten dutenei, ez eta 29.1 artikulua kargaturiko eskritura, akta nahiz notario lekukotzei ere.

II. KAPITULUA BALIOEN EGIAZTAPENA

44. Artikulua.

1. Administrazioak eskualdatutako ondasunen eta eskubideen, sozietate eragiketaren edo egintza juridiko dokumentatuaren benetako balioa egiaztatzen ahal izango du.
2. Egiaztapena Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 55.1. artikuluan ezarritako baliabideen bitartez egingo da.

Gainera, Zergaren kostubidezko eskualdaketen gaineko karga jasaten duten zerga egitateen kasuan, aurreko paragrafoan aipatutako balio-egiaztapenerako gutxieneko balio eratzikigarria zehazteko ezarritako arau teknikoak ere erabili ahal izango dira, baldin eta ondasunei aplikatu ahal bazaizkie.

Balioa finkatu behar zaien ondasunen merkatuko batez besteko prezioak Zerga Administrazioak onesten baditu aldian-aldian taula ofizialen bidez, taula horiek balioa egiaztatzen erabil daitezke.

3. Aurreko 1. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, baldin eta interesatuak eskualdatutako ondasunen benetako balioa aitortzen duena gutxieneko balio eratzikigarria zehazteko ezarritako arau teknikoak aplikatuta sortzen dena edo handiago bada, ezin erabili izango da beste baliabiderik balioa egiaztatzen.

Halaber, balioa finkatu behar zaien ondasunen merkatuko batez besteko prezioak Zerga Administrazioak onesten baditu aldian-aldian taula ofizialen bidez eta interesatuak haiek aplikatuta sortzen den kopurua edo hori baino gehiago aitortu badu eskualdatutako ondasunen benetako balioa, kasu honetan ere ezin erabili izango da beste baliabiderik balioa egiaztatzen.

4. Interesatuak aitortutako balioa, hau da, foru arau honetako 57. artikuluan ezarritakoaren arabera aurkeztu beharreko aitortuaren adierazitako balioa, egiaztapenaren emaitzakoa baino gehiago izanez gero, huraxe hartuko da zerga oinarritzat.
5. Egiaztapenaren emaitzakoa balioa interesatuak aitortutakoa baino gehiago bada, besterentze balioa izango da eskualdatzailearentzat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako, balio hori merkatuko balioaren arabera kalkulatu behar bada.

Hala ere, Administrazioak frogatzen badu lortutako prezioa egiaztatutako balioa baino gehiago dela, huraxe hartuko da besterentze balioa.

6. Egiaztatutako balioa aitortua baino %50 gehiago izanez gero, Foru Aldundiak eskubidea edukiko du eskualdatutako ondasunak eta eskubideak beretzat eskuratzeko.

Eskubide hori Zergaren likidazioa irmo bihurtu eta hurrengo sei hiletan soilik erabili ahal izango du. Eskubide hau erabiltzen den bakoitzean eskualdaketa-eragatik ordaindutako

zenbatekoa itzuliko da. Ondasunak edo eskubideak okupatu baino lehen prezio osoa ordaindu behar da, hau da, aitortutako balioa.

7. Gehieneko besterentze balioa tasaturik duten babes ofizialeko edo berdinetatik administrazio kategorietako etxebizitzak baloratzeko, Zergaren oinarria ezin da izan etxebizitzari babes ofizialeko edo berdinetatik administrazio kategorietako etxebizitzari buruzko legeria aplikatuz dagokion gehieneko prezio baino gehiago.
8. Ondasunak eta eskubideak konkurtso prozedura baten bidez eskualdatzen badira, epaileak ebazpen bidez finkatzen duen balioa benetako balio hartuko da eta, beraz, ez da egiaztatu behar balioa. Kasu honetan sartzen dira epai bidez onetsitako hitzarmenean ezarritako kreditu-lagapenak era likidazio-fasean egiten diren aktibo benerentzeak ere.

45. Artikulua.

Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 55.2. artikuluan aipatzen den peritu-tasazio kontrajarria interesatuak egiaztapenaren emaitzarekin ados ez dagoela adierazteko eskatzen duenean egingo da.

46. Artikulua.

1. Zerga Administrazioak interesatuei batera jakinarazi ahal izango dizkie foru arau honen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egindako balio-egiaztapena eta berari dagokion likidazioa.
2. Hori egiten badu, likidazioarengatik zerga-zorraren sarrera berez etengo da, bermea jarri beharrik gabe, interesatuek administrazio egintza aurkaratuz gero, baldin eta aurkaratutako egintza Administrazioak egindako balio-egiaztapena bada.

Interesatuek peritu-tasazio kontrajarriaren aparteko bidea erabiltzea eskatzen badute ondasun eta eskubideen balioa finkatzeko, eskaerak aurreko lerroaldean adierazitako ondore berak izango ditu.

3. Administrazioak balioak egiaztatzeke administrazio egintza bereiz jakinarazten badu, ez da bidezkoa izango likidazioa egitea harik eta egindako balio-egiaztapena irmoa izan arte, eta bitartean berandutza korrituak sortuko dira.
4. Administrazioak egiaztatutako balioek zerga arloan ondorioak izan ditzaketenean eskualdatzaileentzat, balioak egiaztatzeke egintza horren kontra egin ahalko da, egintza hori ezartzen den zergan halakorik egitea kontuan hartzen bada. Horretarako, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahalko da, auzi ekonomiko-administratibo beneretik jo edo perituen tasazio kontrajarri baten bidez zuzentzea eskatu.

Erreklamazioa edo zuzenketa osorik edo zati batean onartzen badira, horren gainean emaniko ebazpenaren onuradun izango dira ere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

47. Artikulua.

Ebaluazio prozedurak eragiten dituen administrazio egintzak, bereiz jakinarazi nahiz likidazioarekin batera jakinarazi, ekonomia-administrazio beneretik aurkaratu ahal izango dira balioen egiaztapenari dagokionez, baldin eta aurkarapenaren oinarriak zergen arloko egintzak edo zuzenbiderako auziak badira.

48. Artikulua.

1. Eskualdatutako ondasun edo eskubideen balioen egiaztapena dela-eta desadostasunak sortzen direnean, baldin eta balioei buruzko desadostasunak badira, peritu-tasazio kontrajarriaren bidez ebatzi ahal izango dira, eta ezin izango dira ebatzi ekonomia-administrazio beneretik.

2. Interesatuak peritu-tasazio kontrajarria eragin ahal izango dute; horretarako eskabidea aurkeztu beharko dute, Administrazioak egiazaturiko balioetan oinarriturik egindako likidazioaren aurka egin daitekeen lehenengo erreklamazioa aurkezteko epe berean.
3. Baldin eta interesatuak uste izaten badu jakinarazpenean ez zaizkiola behar bezala adierazi berak aitortutako balioak igotzeko kontuan izandako datuak eta zioak, eta inguruabar hori salatzen badu birjarpenezko errekurtsioan edo ekonomia-administrazio bideko erreklamazioan, peritu-tasazio kontrajarria erabiteko eskubideari eutsiz, aurreko idatz-zatian aipatu den epea interesatuak jarritako errekurtsio edo erreklamazioa ebazteko erabakia administrazio bidean irmoa den lehen egunetik hasita zenbatu beharko da.
4. Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 127. eta 128. artikuluetan aipatzen den peritu-tasazio kontrajarria Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Kudeaketako Araudia onetsi duen uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuko 97. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko da.
5. ...

49. Artikulua.

1. Foru arau honen 57. artikuluan aipatutako autolikidazioa egitea bidezkoa ez izateagatik peritu-tasazioaren aparteko bidea erabili beharra dagoenean, zer esanik ez, aitorturiko balioen likidazioa egingo da, tasazioaren eragiketei jarraitzearen kalterik gabe, bidezko dadin likidazio osagarria igorpetzeko berorren emaitzaren menpe egongo delarik.

Hau hala izan arren, lehen likidazioaren ordainketa egin ondoren, Jabetzaren Erregistroan lerrokatu ahalko dira lerrokagarri diren ondasunak, azken likidazioaren emaitzen zain loturik geratzen direla ohartaraziz.

2. Era berean, foru arau honen 57. artikuluan aipatutako autolikidazioa egitea bidezkoa ez izateagatik Bulego Likidatzailearen aurrean Administrazioak egin eta administrazio-egintza bereziaren bidez jakinarazitako egiaztaketaren aurka galdapen ekonomiko-administratiboa tartejartzea ziurpetzen bada, zer esanik ez, aitorturiko balioen likidazioa egingo da, espedientea ebatzi ondoren bidezko izan daitezen osagarriak igorpendzearen zain. Ziurtapen horren ezean, egiazaturiko balioaren gaineko likidazioa igorpenduko da, bere garaian bidezko izan daitezen zuzenketen kalterik gabe.

III. KAPITULUA SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

50. Artikulua.

1. Zergaren sortzapen-aldia:
 - a) Ondare eskualdaketetan, kargaturiko egintza edo kontratua egin dadin egunean.
 - b) Sozietate-eragiketetan eta egintza juridiko dokumentatuetan kargaren peko egintza formaliza dadin egunean edo 38. artikulua aipatzen dituen agiriak eta idazkiak emanak edo formulatuak izan daitezen egunean.
2. Ondasunen eskuraketaren eraginkortasuna baldintza, termino, fideikomiso edo beste edozelako mugaketaren bat dela eta etenda aurkitzen denean, beti direlako mugaketa horiek desager daitezen egunean egindakotzat joko da.

51. Artikulua.

1. Preskripzioa, hurrengo atalean xedaturikoa izan ezik, Tributuei buruzko Foru Arau Orokorren 64. artikuluan eta hurrengoetan aurrikusitakoaren arabera erregulatuko da.

2. Preskripzioaren ondorioetarako, likidaziorako aurkeztu behar diren agirietan, pribatuen data aurkezpenarena dela joko da, behinik behin lehenago Kode Zibilaren 1227. artikuluan aurrikusitako edozein inguruabar gertatzen denean izan ezik, honela izanez gero, hurrenez hurren, eransketa, lerrokaketa, heriotza edo ematearen data konputatuko delarik. Agiri bidez aditzera ematen ez diren kontratuetan, ondorio berberetarako, haien data interesatuek 54. artikuluan aurrikusitakoa bete dezaten egunari dagokiona dela joko da.
3. Funtzionario atzerritarrek baimendutako eskrituren suposamenduan, preskripzioaren epea edozein Administrazio espainiarren aurrean aurkezten diren egunetik zenbatuko da, Espainiak sinatutako Nazioarteko Tratatu, Itun edo Hitzarmenen batek epe hori hasteko beste datarik ezarri ezean.

IV. KAPITULUA **ERAZKO ERANTZUNBEHARRAK**

52. Artikulua.

1. Subjektu pasiboek zerga honen aitortpena aurkeztu beharko dute Ogasun eta Finantza saileko foru diputatuak foru agindu baten bidez zehaztuko dituen lekuan eta moduan.

Ezartzen diren kasuetan aitortpena baliabide telematikoen bidez aurkeztu ahal izango da, berariazko prozedurari lotuta eta behar diren betekizunak beteta.

Gainera, foru arau honetan zehaztutako zerga egitateen berri ematen duten agiriak paperean zein telematikoki aurkez daitezke, kasuan kasukoa, aitortpena aurkezteko hautatzen den moduaren arabera. Aitortpenean eskualdatutako ondasunen eta eskubideen, sozietate eragiketen edo egintza juridiko dokumentatuen benetako balioak adierazi behar dira.

2. Aitortpen hori 30 asteguneko epean aurkeztu behar da, egunok egitate zergagarria sortzen den unetik zenbatuak izango direlarik.
3. Halaber, Zerga honen subjektu pasiboek salbuespen edo txikiak beraiei aintzatesteko zio izan ziren beharkizunak betetzeari uzten badiote, horren aitortpena aurkeztu beharko dute aurreko 2. idatz-zatian ezarritako epe berean, eta epe hori beharkizunak betetzeari utzi zioten lehen egunetik zenbatu behar da.
4. Aitortpenaren aurkezleak, aurkezpenaren ondorio hutsez, Zerga ordaindu beharra dutenen mandatari izaera izango du, eta aurkeztutako agiriari dagokionean eginak izan dakizkion jakinarazpen guztiek, balioen egiaztapenei nahiz egin daitezkeen likidazioei dagokienean, eta, era berean, izenpetzen dituen diligentziek, interesatuek beraiek egingo zituztenen balio eta ondorio berberak izango dituzte.
5. Higiezinaren eskualdaketetan, zergadun ez-egoileek zergetarako helbidea, zerga honen ondoriozko ordaindu beharrekoak betetzeko ondoreetarako, beren ordezkariaren helbidean izango dute. Ordezkarria Ez-egoileen Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauaren 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera izendatuko dute, eta higiezina erosten den egunetik bi hilabeteko epean zerga Administrazio eskudunari jakinaraziko diote.

Ordezkaririk izendatu ez denean, edo izendapena jakinarazteko betebeharra bete eze denean, zergadunaren zergetarako helbidea eskualdatu den higiezina izango da

53. Artikulua.

Epai-organoek epaitza betearazlearen edo epaitza irmoaren izaera dutenen hilabeteroko zerrenda, edozelako ondasunak nahiz eskubideak eskualdatzen edo adjudikatzen badira, bidaliko diete Bulego Likidatzaileei ondasunen, zerbitzu pertsonalen, kreditu edo kalte-ordainen prezioa osatzen duten eskudiruzko kopuruak izan ezik.

Notarioek, Bulego Likidatzaileei, hiruhilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barnean, beraiek aurreko hiruhilabetekoan baimendutako agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diete, azken borondateko egintzak, seme-alaben aitorpena eta Foru Aldundiak mugarriz ditzan gainerakoak izan ezik. Epe berberaren barnean, baita ere, ezagutzeko edo izenpean legebidezaketa egiteko aurkeztuak izan zaizkien Zergaren ordainketaren peko kontratuak osatzen duten agiri pribatuen zerrenda bidali beharko dute. Halaber, menpeko agirietan legezko ohartarazpenen artean, eta espresuki, interesatuek likidaziorako aurkeztu behar dituzteneko epean, hala nola ondasunak beraiekin egin diren eskualdaketei dagokien Zerga ordaintzeari loturik egotea, eta aurkeztuko ez balitz sortzen diren erantzukizunak jarriko dituzte.

Artikulu honetan aurrikusitakoa, Tributuei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzaren behar orokorraren kalterik gabe ulertzen da.

54. Artikulua.

Bankuek, Aurrezki Kutxek, Elkartek, Sozietatek, funtzionarioek, partikularrek edo beste edozelako Entitate Publiko nahiz pribatuek ez dute erabakiko ondasunak titularra ez den pertsonari ematerik, aurretiaz Zergaren ordainketa, salbuespena edo loturik ez egotea benetakotzen ez bada, behinik behin Administrazioak baimentzen ez badu. Epai organoek, benetakotze hori egin gabe erabaki ditzaten ondasun-emateak jakinaraziko dizkiote tributuan Administrazioari.

55. Artikulua.

1. Zerga honen kargapeko egintzak edo kontratuak jasotzen dituzten agiriak ez dira onartuko bulego eta erregistro publikoetan, eta ez dute inolako ondorerik sortuko, baldin eta aurretik ez bada frogatzen zerga administrazio eskudunari zerga zorra ordaindu zaiola edo egintza edo kontratua kargatik salbuetsita dagoela (edo ez dagoela agiria halakoetan aurkeztu beharrik). Administrazio interesatuari berehala emango zaio gertaeren berri. Auzitegiek eta epaitegiek onartzen dituzten agirien kopia baimenduak igorriko dizkiete Zerga likidatzeko eskumena duen zerga administrazioari, hain zuzen ere likidazioa egiteko administrazio horri aurkeztu direla dioen oharra ez duten agirienak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondoretarako, Zerga ordaindutzat joko da agiriarekin batera ordainketa egin dela jasotzen duen Zergaren autolikidazioa aurkezten bada.

Zergaren aitorpena baliabide telematikoen bitartez aurkezten bada, atal honen lehen paragrafoan ezarri den zerga ordaindu dela edo egitatea ez dagoela kargapean edo kargatik salbuetsita dagoela frogatzeko aitorpenaren kopia aurkeztu behar da, eta bertan Bizkaiko Foru Aldundiaren sistema informatikoen sortutako zigilu elektronikoa agertu behar da aitorpena aurkeztu den seinale.

Zigilu elektronikoa benetakoa eta baliozkoa denez argitzeko prestatu duen organoaren fitxategiak arakatu ahal izango dira baliabide telematikoen bitartez.

2. Erregistratzaileak eskualdatutako ondasuna edo eskubidea likidazioaren edo likidazio osagarriaren ordainketari atxikita dagoela agertaraziko du bazterreko oharra eginez.

Bazterreko oharra ofizioz egingo da. Egindako likidazioaren ordainketa gutuna aurkezten denean ondorerik gabe geldituko da eta indargabetu egin beharko da. Gauza bera gertatuko da egiten denetik bi urte pasatutakoan.

3. Honakook ez dira Bulego Likidatzaileetan aurkeztu behar:
 - a) Baliozta daitekeen gauza edo kopurua xede ez duten notarioen akta eta eskrituren kopia eta mota guztietako notario-testigantzak, Zergaren menpeko egintzak dituzten agirienak izan ezik agiritan ordainketa-, salbuespen-edo lotura-oharra agertzen ez bada.
 - b) Kanbio-letrak eta protesto-aktak.

- c) Egintzei eta kontratuei buruzko beste agiri batzuk, baldin eta haietarako Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga ordainarazteko era bezala efektu tinbredunak erabili beharra erabakitzen badu.
 - d) Erregistro Publikoetan idaztohartzeko luzatutako prebentziozko idatzizko oharrek egiteko agintzen duten agiriak, baldin eta prebentziozko idatzizko oharrok Estatuak edo Erakunde edo Lurralde Administrazio Publikoek erkatzen badituzte.
 - e) Notarioen eskrituren kopiak, baldin eta sozietatearen kapitalaren kopurua berriro izendatzeko eta sozietateen kuoten, partaidetzen eta akzioen balio izendatutik hurbilenera ehunenera doitzeko eragiketak dokumentatzen badira eta haiek Euroa sartzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legearen 21. eta 28. artikuluetan ezarrita badaude.
 - f) Ahalordeak, fakturak eta merkataritza-trafikoaren antzeko gainerako agiriak.
 - g) Eskritura publikoak ez badira ere, Jabetzaren Erregistroan jasotzen edo inskribatzen diren dokumentuak. Bereziki, hipoteka banatzeak edo ezerezteak formalizatzen dituzten dokumentuak.
 - h) Babes publikoaren erregimena bukatu dela adierazten duten dokumentu pribatuak.
4. Uztailaren 17ko 50/1965 Legeko 22. artikuluan aurreikusitako ondasun higigarriak epeka saltzearen kontratuak eta mailegukoak, lege bereko 23. artikulua aipatzen duen Erregistroan sartu ahalko dira, haietan bere egoera fiskalari buruzko administrazio-oharrik izan gabe.

56. Artikulua.

Aurretiaz salbuespenari dagokion Zergaren ordainketa ziurpetu gabe, ezin izango da edozein tributu nahiz ordainarazpenen subjektu pasiboa aldatu, aldaketa horrek zuzenean edo zeharka Foru Arau honek kargaturiko ondasun, eskubide edo egintzen eskualdaketa bat dakarrenean..

V. KAPITULUA ZERGA ZORRAREN AUTOLIKIDAZIOA ETA SARRERA

57. Artikulua.

1. Subjektu pasiboek, foru arau honen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera Zerga honen zioz aurkeztu behar duten aitorpena aurkezteaz batera, zerga zorra zehaztu beharko dute eta Ogasun eta Finantza saileko foru diputatuak foru agindu baten bidez adieraziko dituen lekuan eta eran ordaindu.
2. Hala ere, ez dira autolikidaziorik izango jaraunspen bidezko oinordetzetan egindako zatitze-eragiketetatik datozen zerga egitateak, baldin eta Administrazioari Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz likida ditzan aurkeztutako agirian ere azaltzen badira, eta subjektu pasiboek azken zerga horren autolikidaziorik aurkezten ez badute.

Horrelakoetan, subjektu pasiboek ez dute zerga zorraren zenbatekoa zehaztu behar ezta Foru Ogasunari ordaindu ere, baina horrek ez ditu salbuetsiko foru arau honen 52. artikuluan aipatutako aitorpena aurkeztu beharretik. Gerora, Zerga Administrazioak bidezko diren likidazioak emango ditu.

3. Zerga Administrazioak foru arau honetan xedatutakoa aplikatuz egindako likidazioak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergabilketari buruzko Araudian ezarritako epeetan ordaindu behar dira.
4. Efektu zildaikatu bidez ordaindu behar diren tributu zorrak, egitate zergagarria egiten den unean bertan ordainduko dira.

VI. KAPITULUA ITZULKETAK

58. Artikulua.

1. Judizio edo administrazio bidez jotzen edo onartzen bada, ebazpen irmo bitartez, egintza edo kontratu bat deuseztatu, hutsaldu edo ebatzi dela, zergadunak eskubidea izango du Zergaren kuotagatik ordaindu zuenaren itzulketa jasotzeko, baldin eta irabazizko efektuak eragin ez badizkio eta itzulketa eskatzen badu Zergari buruzko Foru Arau Orokorrak 64. artikuluan ezarritako preskripzio epean, ebazpena irmoa denetik hasitakoan.
2. Irabazia dagoela ulertuko da interesatuek Kode Zibilaren 1295. artikulua aipatzen dituen elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztela ziurpetzen ez denean.
3. Egintzak edo kontratuak irabazirik sor baleza, eginiko likidazioa zuzenduko da, horretarako oinarritzat eskualdaturiko ondasun edo eskubideen denborazko gozamenaren balioa hartuz.
4. Egintzak edo kontratuak irabazirik sortu ez arren, hutsalketa edo deuseztapena, Zerga ordaintzeko fiskalki behartua dagoen kontratariaren erantzunbeharrak ez betetzeagatik adierazten denean, ez da inolako itzulketarik izango.
5. Kontratu alde kontratarien elkarren arteko adostasunez ondoriorik gabe geratzen bada, ez da bidezko izango ordaindutako Zerga itzultzea eta tributuaireko joko egintza berrizat joko da. Holako elkarren arteko adostasuntzat adiskidetze-egintzan bat etortzea eta demandaren onartze soila joko dira.
6. Atzera-itundun salerosketan atzeraketa burutzen denean, ez da Zerga itzultzeko eskubiderik izango.
7. Foru Aldundiak agiri zildaikatuen edo zildai mugikorren trukea edo haren zenbatekoaren itzulketa, baimentzen deneko balizkoak mugarrituko ditu beti ere ondoriorik sortu ez badute.

V. TITULUA

VII. KAPITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA

59. Artikulua.

Zerga honen urratzeak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritik kalifikatu eta zehatuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Otsailaren 14ko 2/1989 Foru-Arauaren 5. artikuluko 6. atala aldatu egiten da, hurrengo era honetan geratuko dela:

«6. Aseguru-Baltzu edo Erakundeetatik, heriotza gertatu dadineko bizitza-aseguroen zioz jaso daitezkeen 5.000.000 pezetarainoko zenbatekoak, kontratu-egilearen eta gozamenaren ahaidetasuna ezkontide, arbaso, aita/ama-orde, ondorengo edo hartutakotzakoa bada.

Dena dala, taldekako aseguruetan edo enpresek euren langileentzako hitzarmendutakoetan kontuan hartuko dena aseguruaren izenpetzaile eta hartzailearen arteko ahaidetasuna izango da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

Foru Arau honetako manuak jadaneko bihurtu ondoren sortutako egitate zergagarriei izango zaie aplikagarri.

Lehenago sortutakoak aurreko arautegiaren arabera erregulatuko dira.

Bigarrena.

Nola zehaztu non dagoen sozietate gardenen ohiko egoitza eta araubide iragankorra.

Foru arau honetako 6. artikuluko 2. idatz-zatiko A) letrako 2. erregelari xedatutakoa gorabehera, zergadunen interesen gune nagusia Bizkaian dagoen zehazteko ez dira kontuan hartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari, Ondarearen gaineko Zergari, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauak aldatu dituen martxoaren 26ko 5/2003 Foru Arauko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan xedatutakoa dela bide egotzitako korrituak ere, beti ere zerga-gardentasun profesionalaren araubide berezia duten sozietateak ez badira

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Testu honetan barnesarturiko xedapenak Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitara daitezen egunaren biharamonetik izango dira aginduzko, indarrrik gabe geratzen direlarik beronen aurkako agindu guztiak.

Bigarrena.

...